

A photograph of a person from behind, walking on a grassy dune. The person is wearing a dark, patterned jacket and carrying a white surfboard under their arm and a blue bag over their shoulder. The background is a vast, open landscape under a clear sky.

uk

167. zenbakia / 2009ko abenduaren 14a

Uribe Kosta

izarren distira!

Gala:
Abenduak 18, 19:00etan
Kurtzio Kultur Etxean (Sopelana).
Sarrera dohainik

Gonbidapenak:
Sopelanako Kurtzio Kultur Etxean

Saria: Ikas bidaiarako diru laguntza
ala asteburu pasa lagunekin

Aurkezlea:
NEREA ALIAS

Gonbidatuak:
Break dantzariak

Informazio gehiago:
www.izarrendistira.nireblog.com

Tuentin ere zure zain!

GetxOnegin

I. Pintxo lehiaketa

Abenduak 19/20

Algoritza: Andromari Lorea jatekoa • Gera! taberna • Aterpe taberna • Serrano taberna • La Bodeguita Butron • Baseri taberna • Sustrai taberna • Batzoki taberna • Telagom jatekoa • Ugartena jatekoa • Amatxo Marea taberna • The Piper's taberna • Jolastoki jatekoa

Romo: Areta Gure Etxea taberna • Arotza taberna • Baste taberna • Glass kafetegia • Cosmopolita kafetegia • Arotzako Batzoki • Rio kafetegia

euskarak asetzen gaitu

mauka mauka
Beste nany-nam
pintxo glup-glup!
dzanga-dzanga! bat
mesedez

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
 HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
 ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Menthaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
 KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentzako Topaguneko partaidea da.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Emakumea Arrigunagan.
- LEHEN ETA ORAIN. Areetako hondartza.
- TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Valentin Ardeo.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Euskal Kulturaren Jardunaldiak.
- ARGAZKIA. Thalassa goleta-bergantina.
- BERBETAN. Fermin Muguruza.
- FOTOGRAFIA. Iker Basterretxea.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Zinema Bultzatuz, zinea euskaraz.
- MUSIKA. Aupa Maurizia! Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Ipupomamua saioa. Erreseinak.
- KIROLAK. Kirol esparruan euskararen erabilera sustatzen.
- ELKARRIZKETA. Fatma Galia M. Salem.

AMAITZEKO

- NORA JOAN. GetxOnegin.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Areetarrak Urdulizen, 1976.
- AITORMENAK. Toti Martinez de Lezea.

Azala: Iker Basterretxea



30 Fermin Muguruza

Berbetan

Palestinara eraman gaitu musikariak bere azken lanagaz; beste behin ere bi kulturen arteko zubia izan da.



11 Valentin Ardeo



54 Toti Martinez de Lezea

MÉGANE EMOTION

85cv dCi

10.600€*

1.000€-ko deskontua
aukerako edozein ibilgailu erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak barne. Ikustaraziko eta eskaintzako bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea uztean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberri.com

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Nafarroa

Lotsagarria. Baina ez dabe sinesten. Nafarroako gobernuan dauzenek eta euren boto emoleek ez dabe euskeragaz sinesten, eta barriro ere, 'linguae navarrorum' gutxiespen hutsez tratatzen dute. Eta hizkuntzagaz batera, hizkuntza horren hiztunak ere bai.

Nafarroako gobernuak euskararen laguntza ofizialak murriztu baino, desagerrarazi ditu. Sosik ez. Arlo batzuetan 100 eurogaz lotu dira. 100 euro, esaterako, ikastoletako garraiorako. Adibide bat baino ez da, euskerako erakundeak ez baitira egoera hobean. Nafarroako gobernuko euskara zuzendaria lotsatuta da. Ez da harritzekoa. Harritzekoa dana, altxatu ez diren ahotsak. Euskadiko komunikabideetan, EiTbN kenduta, ia isilean lotu da. Euskara ez da Vocento eta beste prentsa espainolaren gakoa. Nafarroko kontua bada, are gutxiago. Gizarte bakoitzak merezi dituen jaurларitza eta komunikabideak dauzka.

gu geu

Oh la la, gure Olentzero

Ohiturak aldatuz doaz. Aurten Olentzeroak ez du pipa hortzen artean ekarriko, tabakoaren lege barria gainean daukagu eta ezin izango da gune publikoetan erre. Ardo botila, muztioagatik aldatu du; oraingoan ez da legea izan, medikuak debekatu dio, zirrosi arriskua du eta. Astoa etxean utzi du, Sopelan animaliegenako tratu txarren kontrako araudia jarri dute eta ezin dio oparien karga guztia gainean jarri. Dena den, ez du astoaren beharrik izango. Krisiak ikazkinen sektorea gogor jo du eta Eroskiko poltsa batean (berrerabilgarria, noski) sartuko ditu opari guztiak. Gainera, azken urteotan, Mari Domingiren laguntza izan du; dirudienez, Berdintasun Legeak behartuta, senarragaz batera joan behar 24an. Hori guztia gutxi balitz, azken urtean 20 kilo galdu behar izan ditu Olentzerok; Hezkuntzatik abisua eman zioten, lanpostua mantentzeko dieta egin behar zuela, gazteen artean obesitatea arazo larria da eta, antza, Olentzero ez da eredu egokia.

Abesti barria behar dugu Olentzero maitearentzat. Nork asmatuko du? Ken 7, Gatibu ala Txapelketa Nagusiko bertsolari gazteek? Lasai, egiten dutenean jakingo duzu, UK-kook elkarrizketa egingo diogu-eta. Beste barik, Eguberri on! Eta gogoratu, guk ere oparitxo merezi dugu. Izan zaitetz, UK-ren Olentzero!

UK-ko lantaldea

Iritzia

ALBEko Nahikari Ayok Bertso Txapelketa Nagusiaren balorazioa egin du. Zaila da hainbeste bertso eta emozio laburbiltzea; hona hemen kronikatxo ederra!

Txapelketa baino askoz gehiago

Artikulu hau irakurtzen duzuenerako, jakingo duzue nork daroan 2009ko txapela jantzita. Alegia, nor izango den bertsolarien “buru” hurrengo lau urteetan.

Txapelketa berezia izan da gauza askoren-gatik: puntuazioak (horretan ez dut sakondu-ko), jendetza, gaiak, tek-nologia barriek izan duten pisua, bertsolari gazteek egindako lan itze-la, bertso-hoolingan-ak... Aurtengo ardatza emozioak piztea izan da. Horregatik errusiar men-diaren irudia eta 2009 zenbakia bihurgunez betea. Hainbat unetan hunkitu gara, baina ez dakit gehiago hunkitu naizen oholtza gainean zeudenakaz edo oholtzaz kanpokoek bertsola-riei eskeini dieten babesagaz. Oholtza barruko uneak aukeratzekotan hiru:

- Onintzak Hendaian bota zuen azken agurra. Bertsolaria negar zotinka, publikoa txaloka, zutunik eta Jon Maiak emandako besarkada, samurtasunez betea.

- Fredik Xabiren urtebetetze egunean botatako azken agurra. Laudioko kiroldegian geundenok Kaxianoren Zorionak kantua abesten bukatu genuen.

- Xabik Uztaritzen, ALBEri eskainitako azken agurra. Azken batean, Getxo eremu erdalduna izanda, finalaurrekoetan bertsolari gehien izan dituen herria da eta urte hauetan bertsolari asko sortu dira gure eskolan (eta sortuko direnak!).

Gaiekin gorabeherak egon dira. Zaba-legiak eta itxiak, erdibiderik ez. Aktualitateari egin diote erreferentzia. Euskal Herriko gataz-ka oso presente egon da. Gai tristeak ugariak izan dira, gizartearen ispilua, hala ere, bertsola-riek lan bikaina egin dute gaiei mamia ate-ratzen.

Eta jendetza? Nondik atera da hainbeste jende? Ilara luzeak, sarrerak agortuak, ordu bat lehenago sartu beharra leku txukun bat topatzeko,... Ez dakit zer daukan bertsoak hainbeste jende erakartzeko. Ni txikitan harrapatu ninduen eta orain barre egiten zigu-tenak bertso-eskolan ibiltzeagatik, saioetara joaten dira. 90.hamarkadan boom antzekoa egon zen, ume pila hasi ginen bertsotan, 2005ean beste bat, eta oraingoan beste bat are handiagoa. 14.500 lagun BEC-en! Zenbat iraungo duen? Ez dakit, baina behintzat, gau-zak ondo egiten gaudenaren seinale da.

Izenburuak esaten duen bezala, bertsoa txapelketa baino askoz gehiago da. Txapelketa elkargune berezia da. Bertan udalekuetako umeak zein begiraleak topatzen dituzu, aspal-dian ikusi bako lagunak, unibertsitateko adis-kideak,... Generazio desberdinen topagunea da: gazteak zein helduak leku berean egotea lorpen handia da. Eta batez ere, bertso-eskola-ko familiagaz une ederrak igarotzeko parada.

Nahikari Ayo
(Bertsolaritza irakaslea)

[irudia]



ARRIGUNAGA (GETXO), 2009KO AZAROAREN 23A

Beltzarantzeko oliotik kakao-kremara / Ez da udatik gordeta eduki dugun argazkia, ez; harrigarria, sinestezina emoten badu ere azaro akabuan ateratakoa da. Udaren azkena azaroan bizi izan dugu aurtengoan, baina sasoian sasoikoa dela hoberena gogoratzera heldu da dagoeneko mendi gailurretara elurra. Udazken honetako Eguzki amandrearen horzepeletik sutondoko epeltasunera pasarazi gaitu Eguraldi guratsuak; goizetik gaurera beltzarantzeko olioa erabiltzetik kakao-krema erabiltzera. Halere, ausartak dira, gero! Azalerako ez dakigu, baina hezurretarako ona ei da eguzkia hartzeal. ○ / Argazkia: Asier Mentsaka

muska
filmak aldizkariak
komikiak liburuak
gurasoentzako
materiala
informatika
jostailu eta
jokoak

Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO
Euskara zerbitzua

EUSKARAZKO PRODUKTUEN
katalogoa
www.katalogoa.org

KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN
Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

• BEHIN BATEAN	• LIBRERÍA LAS ACACIAS
• BOLIBAR ELORDUI LIBURU-DENDA	• LIBRERÍA NADAL
• COSAS	• LIBRERÍA MAYOR 29
• ITXAS-IKUS	• NORAY LIBURU-DENDA
• LA GUSANA LIBURU-DENDA	• ORIXA LIBURU-DENDA
• LIBRERÍA-ESTANCO SAN JOSE	• TROA LIBRERÍAS
• LIBRERÍA GOBELAURRE	• ZUGATZARTE LIBURU-DENDA
• LIBRERÍA ITZIAR	

www.katalogoa.org
www.getxo.net

**GORPUTZA
BIZKOR
ETA
MINGAINA
SASOIAN**

Animatzekoak sakelakora deskargatzeko
(SMS) bidali **aurrera 5195** era

www.getxo.net/eutsi

Sorbidatzaileak:

- Getxo
- BUSKAPPA

Finantzatzaileak:

- bbk
- ALAKBIDE
- BFA OFD
- EUROPEAN UNION



Iraganez doa denbora* beti / AREETAKO HONDARTZA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



2009ko urria, Telletxe kalea (Algorta)

Testua: **Peru Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* *Doinua: Haurtxo txkia negarrez dago*

Egun hauetan gustagarria den arren gure etxea kalera irten, gainean jarritz txamarra eta jertsea kostako klimak euria dakar, txingorra eta haizea; Euskal Herrian bizi garenez tokatzen da bustitzea.

Negua luze bihur daiteke
bateko eta besteko,
baina libreak izango gara
eguzkiaz amesteko?
Euri azpian eutsi dezagun,
pazientziaz hobeto;
negua pasa behar da-eta
udaberria heltzeko.

Hodei arteko iluntasuna
pixkat argitzen ari da
eta nahi (e)ta ez gogoia joan
zaigu datorren argira
aterkiaren azpian jarri,
baina aurrera begira
orain itxaron, (e)ta laster egun
hobeak helduko dira.

Urbitakoran parte hartu gura duzu? Bidal diezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail..... Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)



Olentzero > herrirako bidea hartu du zakua bete opari!



Olentzerori harrera egingo diote herriz herri abenduaren 24an

Azken opariak eskatzeko garaia da, Olentzero laster iritsiko da-eta. Eskualdera datorkigu aurten ere, abenduaren 24tik 25erako gauean. Ohi legez, herriko kaleetan ibiliko dira haren omenez kantari. Berangon kalejira egingo dute Berangoetatik frontoiraino 18:30ean. Gorlizen ordubete lehenago urtengo dira Eliz plazatik, 17:30ean. Urdulizen 18:00etan izango da, eta Plentzian, 17:00etan zubitik. Sopelan ere ordu berean egingo diote harrera Olentzerori Urgitxieta plazan, eta Leioan, arrastian ibiliko dira herriko taldeak kantuka plazaz plaza. Erandion eta Getxon auzoz auzo ibiliko dira, herri horietako orrialdeetan jaso dezakezu informazio gehiago. Baina horretaz guztiaz gain, makina bat ekimen prestatu dute herri guztietan oporretarako: ludotekak, tailerrak, urteerak, antzerkiak, kontzertuak, haur parkeak... Haurrek badaukate beraz, zégaz jostatu gabonotan. Ondo pasa! ○

Getxo, akordaten naz > dokumentala azpitituluakaz eskura daiteke



Azaroaren 25ean eskaini genuen dokumentala Aldai Patronatuan

Barrituta dator *Getxo, akordaten naiz*
dokumentala. Izan ere, azpтитuluak dakartzta, lagun
gehiagorengana heltzeko asmoz, herriko ondarearen
alde garrantzitsua batzen baitu filmak. Euskaraz eta
gazteleraz azpтитulatu dugu. Egitasmoa UK-ren
produkzioa izan zen eta Getxoko Udaleko Euskara
Zerbitzuak lagundu zuen, baina Aitor Gisasolak
zuzendu zuen eta Fredi Paia egin zituen
elkarrizketak; Josu Arroyok jarri dizkio orain
azpтитuluak, Joseba Santxoren laguntzagaz. Udalaren
Euskara Jardunaldien barruan estreinatu genuen
dokumentala azaroaren 25ean. Bertaratu zirenek
filmaren kopia jaso zuten, baina ale bat gura duenak
Euskara Zerbitzura (Makaleta Etorbidea 56, Getxo
II ikastetxe ohia) edota UK aldizkarira (Ameztzi 6,
Getxo) hurreratu eta debalde eskuratuko du. ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria *...lehengo garaiak...* *...itsasoa*

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Egunkaria > epaiketaren gastuak ordaintzeko laguntza eske



Martxelo Otamendi Getxoko hitzaldian. UKBERRI.NET agerkari digitalak utzitako argazkia

Egunotan hasi da Euskaldunon Egunkariaren aurkako epaiketa Madrilén, Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, egunkaria itxi zuenetik zazpi urtera. Auzi politikoa da oraingoa eta bost langile epaituko dituzte. Auzi ekonomikoa, ordea, aurrerago izango da. Zalaparta handia eragin zuen egunkariaren itxierak eta herritarrek tamainako erantzuna eman zioten, elkartasun beroa eskainiz. Orain, zazpi urte ondoren, mobilizazioei ekin diete eta hitzaldiak eskaini dituzte Euskal Herri osoan, auzia azaltzeko. Izan ere, herritarren laguntza behar dute. Epaietakostu ekonomikoa handia eragingo du eta dirua batzeko kanpaina abiarazi dute, Egunkariaren Alde Kultur Elkarateak dauka ardura dirua jasotzeko. Beraz, ekarpena egin gura duenak www.egunkaria.info gunean sartu eta Egunkariaren Alde Elkaratea Diruz Lagundu atalera jo baino ez dauka. Bertan topatuko du bete beharreko orria. ○

Uribe Kosta > internauta euskaldunak batu ditu UKBerri.net atariak



UKBERRI.NET agerkari digitalak utzitako argazkia

UKBlogak UKBlogak topaketan elkartu ziren eskualdeko blogari euskaldunak azaroaren 28an, UKBerri.net atariko lagunen ekinbidez. Helburua, argia: *“erabilgarriak diren zenbait tresna euskalduni buruzko tailerrak aitzakiazat hartuta, eskualdean dabilzan blogari eta internauta euskaldunen arteko lehen kontaktua hartzea eta hortik aurrera sareko komunitate euskaldun eta euskaltzalea sendotzeko prozesua abiatzea”*. Algortako Aldai Patronatuan batu ziren hainbat gai lantzeko. Besteak beste, sakeleko telefonoagaz zuzeneko bideoak erretransmititzen, internet bidezko irratia sortzen euskarazko Wikipedian nola parte hartu ikasi zuten. Gainera, Eskualdeko Internet Gida ekimena aurkeztu eta Algortako mapa abiatu zuten herriko mapa libre eta euskaldunak egiteko ikastaroan. ○



“Beharretik gustukoen dudana, bezeroakaz harremanetan egotea da”

Valentin Ardeo > Amezti kaleko drogeriako saltzailea

Kremak, koloniak, intsektizidak eta etxean erabiltzeko produktuak saltzeagaz batera, erantzunak eta gomendioak oparitzen ditu Valentin Ardeo berangoztarrak. 52 urte joan dira Juli amak Algortako Amezti kaleko drogeria zabaldu zuenetik; amaren ondoan egon zen lehenengo egun horietan, eta azken 13 urteotan, bera izan da dendaren jaun eta jabe: *“Ama 82 urte zituela jubilatu zen”*. Arropatik kendu ezin den orbana desagerrarazten lagunduko dien produktu magikoen bila hurreratzen direnak, irribarretsu hartzen ditu: *“Beharretik gustukoen dudana, bezeroakaz harremanetan egotea da”*. Ohiturakaz batera aldatu da drogeria: *“Lehen ez zegoen supermerkatuarekin eta, inguruko etxeetako neskameak, hemen erosten zituzten garbitzeko xaboia, komune-ko papera eta horrelakoak. Orain, espezializatu egin naiz, denda handietan aurkitzen ez dena ekartzen dut”*. Alvarez Gomez kolonia, Bella Aurora krema... badago betikoak gurago dituenak: *“Askok oroitzapen politengatik erosten dute, euren aitite-amamak aspaldi erabilitako produktuak gura dituzte”*. Ez da erraza izaten guztien galderak erantzutea: *“Ezin denean ezin da. Ez zait batere gustatzen bezeroak mesfidati agertzen direnean; nik ez dut inor engainatzen”*. Denborak irakatsi dio Ardeori dakien guztia, eta denborak uzten dion bitartean, sekretutxoak oparitzen jarraituko du. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion
Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

400.000 euro lankidetzarako

Udalak, Garapenerako Lankidetza Sailaren bitartez, joan den urtean baino **55.000 euro gehiago** banatu ditu aurten; **hiru kontinentetan 14 proiektu** eroan dira aurrera

Krisia gainean izan arren, Getxoko Udalak, Garapeneko Lankidetzako Sailaren bidez, joan den urtean baino 55.000 euro gehiago bideratu ditu lankidetzako proiektuetarako eta gizakien garapenaren aldeko udal politika indartzeko. Guztira, 400.000 eurotik gora banatu ditu elkarleen eta GKEen artean.

Getxoko Udalak 400.000 euro baino gehiago zuzenduko ditu 2009an garapeneko lankidetzako egitasmoetarako eta gizakien garapenaren aldeko udal politiketarako. Horietatik, 383.480 euro, Afrika, Asia edo Amerikako herrialdeetan garatzen ari diren edo martxan jarriko diren proiektuentzako diru-laguntzak izan dira eta 18.000, urte hasieran abiatu zen Sahararekiko Euskal Karabana Solidarioarentzako. Joan den urtean baino 55.000 euro gehiago banatuko ditu Udalak aurten. Begoña Ezkurra saileko zinegotzi arduradunak, igoeraren helburua “gizakien garapenaren aldeko udal politika indartzea dela” azpimarratu zuen.

326.595 euro banatuko dituzte 14 proiekturen artean, iaz baino bi gehiago. San Martin de Tours parrokiako lankidetzatza taldea, Correo Misionero taldea, Zabalketa GKE, Lagun Artean elkarte, Vicente Ferrer elkarte eta Erromoko ECCA taldea izango dira diru-laguntzak eskuratu dituztenak. Proiektu gehienak Hego Amerikan burutuko dira; %30 emakumeen ahalmenak areagotzera bideratuta



Vicente Ferrer elkarteak Indian zabaldutako liburutegia

daude; %43a oster, osasuna eta hezkuntzari lotuta.

Sentsibilizazio eta Garapenerako Heziketarako proiektuen atalean, 54.184 euro banatuko dituzte lau proiekturen artean. Zabalketa, UNESCO Etxea,

«18.720 euro banatuko dituzte udalerriko GKEen artean elkartegintza hobetzeko»

Emakume elkarte eta Mundubat fundazioak jasoko dituzte laguntzak arlo honetan. Bidezko merkataritzagaz, ingurugiroagaz eta lankidetzagaz lotutako egitasmoak eroango dituzte aurrera; honez gain, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikasleak, Giza Eskubideak eta Hegoaldeko herrialdeen errealitatea landuko dute.

Azkenik, giza eta larritasun laguntzen atalean, 2.700 euro banatuko dituzte umeen harrera programetan lan egiten duten erakundeen artean: ACOBI (Bielorrusia), KAINABERA (Rusia) eta BIKARTE (Rusia). Honez gain, atal honetan, lehen aipatutako saharar herriarentzako Karabana Solidarioarentzako 18.000 euroak eman dituzte.

Herriko GKEen artean 18.720 euro banatuko dituzte, funtzionamendua landu eta elkartegintza hobetzeko. ○

Datu batzuk

- 401.480 euro garapenerako lankidetzara
- 14 proiekturen artean banatu
- 3 kontinentetan lan egin
- 12 elkartek eta GKEk parte hartu

Bidegorri sarea

luzatuko dute datozen hileetan



Algortako Telletxe kalean 680 metroko bidegorria egingo dute

Bizikleta kirola praktikatzeko zein garraiobide bezala erabili gura duenak, bidegorri azpiegitura handiagoa izango du laster. Udalak aurreratu duenez, datozen hileetan tarte barriak egingo dituzte; guztira, 19 km-tik gora izango duen sarea osatuz. Urtarriletik aurrera, Gabonetako jaiak amaitutakoan, hasiko dituzte lanak, horien kostua, 421.000 eurokoa izango da. Imanol Landa alkateak esandakoaren arabera, Udalarentzat “*bidegorri sarea azpiegitura estrategikoa da*” eta horregatik hobetzen jarraituko dute.

Hiru bidegorri tarte barri egingo dira. Alde batetik, Areetako Negubide kalean, 210 metro egingo dituzte; lanak lau hilabetez luzatuko dira eta 298.000 euroko aurrekontua izango dute.

Bestalde, Algortako Telletxe kalean, 680 metroko bidegorria egingo dute datozen hiru hilabeteetan, 87.900 euroko aurrekontuagaz. Azken tartea, Areetako Ibaigane kalean egongo da; 280 metro izango ditu, 35.000 euro inbertituko dira eta lanak hilabete batean amaitzea aurreikusita dago. Bidegorri zatiak egingo diren kaleetan, ez da aparkalekurik kenduko.

Aipatutako bidegorri tarte barri horiez gain, Andra Mari eta Areetako auzoetan, kilometro bi mugatu eta atonduko dituzte, zoruan seinaleak ipiniz, horietatik bizikletaz ibili ahal izateko. Lehenengoan, 1.350 metro atonduko dira guztira; Ormaza eta Gabriel Aresti artean egingo da zatirik luzeena. Areetan aldiz, 570 metro egokituko dira. ○

SAN NIKOLASEKO LURPEKO APARKALEKUA

San Nikolas plazaren azpian, Basagoiti eta Andres Cortina kaleen artean egingo dute Getxo Antzoki barriko auzokoentzako lurpeko aparkalekua. Aurreikusitakoa betez gero, datorren urteko uda aldera hasiko dira lanak eta 12-14 hilabete luza daitezke. Gobernu taldeak ez du erabaki oraindino aparkalekuak zelan banatuko dituzten algortarren artean. Bestalde, aurreratu dutenez, San Nikolas plaza aparkalekua zabaldu aurretik egongo da erabilgarri herritarrentzat.

EURI-NEURGAILU BARRIAK GOBELAN

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro sailak Eskuinaldean hiru euri-neurgailu barri jartzea erabaki du. Gaur egun, bi daude Gobela ibaian: Larrañazubi aldean eta Udaltzaingoaren egoitzaren parean. Erabaki barriaren arabera, barri bat ipiniko dute Bolue ibaian; gainontzeko biak, Barrika-Urduliz inguruan egongo dira. Gobela ibaiak kaltetutako auzokideen elkarreak, prezipitazioak distantzia txikietan asko alda daitezkeela ikusi da azken urtean. Horregatik eskatu zituen plubimetroak; horiei esker, Gobela ibaiak eroaten duen ur kantitatearen neurketa zehatzagoa egin ahal izango dute.

POLTSA EKOLOGIKOAK HERRITARRENTZAT

Getxo garbia kalean lelopean plastiko poltsen gehiegizko kontsumoa ekiditeko kanpaina abiatu du Udalak. Eguneroko erosketak egiteko poltsa ekologikoak banatuko dituzte herritarren artean abenduaren 18a arte. Getxoko bizilagun guztiek, ekimenaren barri emango duen eskutitza jasoko dute etxean. Eskutitza, poltsa ekologiko baten truke emango diete kanpainagaz bat egiten duten saltokietan, Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoetan eta Getxo Enpresa eta Merkataritza Elkarteen bulegoan. Poltsak Udalaren kolore korporatiboa izango dute eta tolesgarriak izango dira.

Ana Lozano eta Marisa Murga > Tuppersex bilerak

“Kosmetika erotikoan, orgasmo-kilikaria eta olio afrodisiakoak dira izarrak”



Ana Lozano eta Marisa Murga, Sofiarten

2007an zabaldu zuten Ana Lozanok eta Marisa Murgak Areetako Soniarte denda. Arropa eta osagarriak saltzeaz gain, arte erakusketak egiten dituzte. Krisiak emandako kolpeari aurre egiteko, ekimen barritzaile bezain sentsuala abiatu zuten aurtengo irailean. Tuppersex bilerak antolatzen dituzte; jostailu erotikoen azken tendentziak ezagutzeko, zein zalantzak argitzeko balio duten bilera dibertigarriak.

—Zer egiten da tuppersex bileretan?

—Pertsona bat talde batentzako bilera antolatzeaz arduratzen da, lagunakaz adibidez. Gu produktu erotikoez betetako maleta bategaz joaten gara eurak esandako lekura. Dena erakusten diegu eta ukitzeko, zelan erabiltzen den galdetzeko edo, kosmetika erotikoarene kasuan, dastatzeko aukera ere ematen diegu (jateko produktuak direnean). Tarte dibertigarria izaten da; gehiengotan, parte hartzaileek galderak egin eta euren esperientziak elkartrukatzeko dituzte.

—Zenbat irauten du bilera batek?

—Ordu bi inguru. Dena den, taldearen arabera izaten da. Animatuak badira eta eroso badaude, erraztasunez berba egin eta galdetzen dute. Horrelakoetan, zertxobait luzatzen da. Lotsatuta badaude, zailagoa izaten da giroa sortzea eta gaia naturaltasunez lantzea.

—Nori bideratuta daude?

—Ohikoena emakumeak parte hartzea da; baina, talde mistoentzako bilerak antolatzen ditugu. Emakumei gehiago kostatzen zaie sex-shop batean sartzea; horregatik jotzen dute horrelako bilere-

tara. Eskaintzen dugun materiala, emakumeentzako zein bikoteentzako da. Horrez gain, gizonezkoentzako materiala daukagu dendan, enkarguz eska daitekeena.

—Zelako jarrera izaten du jendeak?

—Bikote heterosexual bat dendara hurreratzen denean, gizonak gehiago galdetzen du, neska lotsatu egiten da. Bileretan, denetarik dago; elkar ezagutzen ez badute galdera gutxi egiten dituzte. Badaude oraindino tabu diren gai batzuk; ez dira lotsatzen euren bikoteagaz produkturen bat erabiliko dutela

«Emakumeen masturbazioa eta uzki-sexua tabua dira oraindino»

esatean, baina bai bakarka erabiliko badute. Emakumezkoen masturbazioa tabua da oraindino.

—Zer da gehien eskatu eta galdetzen dutena?

—Kosmetika erotikoan, orgasmo-kilikaria da izarra. Horrez gain, masajeak egiteko olio afrodisiakoa eta bibragailu txikiak. Hori da oinarritzko sorta. Galderei dagokionez, G puntua izaten da protagonista. Emakume askok ez daki zer den edo non dagoen. Baditugu G puntua kitzikatzeko balio duten bibragailuak. Uzki-sexuaz ere galdetzen dute, nahiz eta gai horrek tabua izaten jarraitzen duen.

—Zer egin behar da bilera antolatzeko?

—Non eta noiz egin erabaki eta deitu baino ez. Taldea gutxienez zortzi pertsonakoa izatea eskatzen dugu. Guk produktu guztiak eroaten ditugu eta eurek gura dutena eros dezakete. ○

Informazio gehiago: 644 524 164/
www.soniarte.net

Gauegun Gaztelekua

martxan da dagoeneko; **12 eta 17 urte bitarteko** gazteek erabili ahal izango dute



Oinarritzko ekipamenduagaz zabaldu dute Gaztelekua

Getxoko gazteek badaukate lagunartean egoteko beste txoko bat herrian. Azaroan zabaldu zituen ateak Urgull kaleko udal eraikineko hirugarren solairuan dagoen *Gauegun* Gaztelekuak. 12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilentzako izango da, eta Imanol Landa alkateak inaugurazioan esandakoaren arabera, *“egunero lagunakaz gustura egoteko, hainbat jardueratan parte hartzeko edo euren ekimenak aurrera ateratzeko leku aproposa”* izango da.

120.000 euro inbertitu ditu Udalak lokala atontzen. 240 metro koadro ditu eta oinarritzko ekipamendua dauka

oraingoz. Izan ere, dinamizazio lanetan egongo diren lagunene asmoa, Gaztelekuaren ekipamenduaren zein programazioaren aukeraketa, erabiltzaileen iritzien arabera egitea da. Gazteena izango da funtzionatzeko behar duten arautegia finkatzeko ardura ere.

Egunero egongo da zabalik Gaztelekua; domekatik egunera 17:00etatik 20:00etara, bariku eta zapatuetan, 17:00etatik 22:00ak arte. Bertan egiten diren ekintzetan parte hartzeko hurreratzea baino ez dago. ○

Harremanetarako:
gauegungaztelekua@getxo.net/
94 466 03 56

DANTZA JARDUNALDIAK ETA KOADERNOAK

Getxo Dantza Kultur Elkarteak eskaintza barri bi jarri ditu herriko dantza zaleentzat. Alde batetik, IV. Dantza Jardunaldiak antolatatu ditu abenduaren 26tik 30era. Horietan, jazz, flamenko, dantza garaikide eta dantza klasiko ikastaroak emango dituzte izen handiko lau irakasleek. Parte hartu gura duenak elkarteko telefonora deitu edo e-postara idatzi beharko du aldeaz aurretik. Bestalde, Dantza Koadernoan 5. eta 6. aleak kaleratu dituzte. Horietan, eskola profesionaletan folklorari ematen zaion garrantziak eta ikasle eta dantzari profesionalen arteko aldeaz berba egiten dute. Koadernoak, elkartean bertan zein Yorick liburu dendan eros daitezke.

Informazio gehiago: 94 417 01 40/
danzagetxo@gmail.com

AHOBIEN GALA AREETAN ABENDUAREN 19AN

Algortako Bertsolari Eskolaren, ALBeren eta Getxoko Euskara Zerbitzuaren eskutik, IX. Ahobien Gala egingo da abenduaren 19an Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Bertan, bertso saioa egiteaz gain, AHOBI sariak banatuko dira. Gala arrastiko 19:00etan izango da eta sartu ahal izateko gonbidapena eskuratu beharko da egunean bertan eskolako txarteldegian.

AUTODEFENTSA IKASTAROA TXORIMALON

Algortako Emakume Gazteen Asanbladak (AEGA) antolatuta, *Autodefentsaren txokoa* izeneko ikastaroa egingo da Algortako Txorimalo Gaztetxean, abenduaren 26an goizeko 10:00etan. Lau orduko tailerra izango da bertan, eztabaidatzeko, beldurraren lanketa egiteko eta autodefentsa teknikak ikasteko aukera egongo da. Edozeinek har dezake parte ikastaroan, aipatutako egunean eta orduan Gaztetxera hurreratzea baino ez du. AEGAk azken hilabeteotan aurrera eroan duen *Gurespazioa* ekimenaren barruan kokatuta dago ikastaroa; herriko emakumeek euren sentipenak eta bizi-penak plazaratzeko gunea sortu gura dute.

lagusana

libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Juanjo Cortes > Vicrila lantegiko enpresa-batzordeko presidentea

“Inguruneko industriaren etorkizuna dago jokoan, ondorengo belaunaldien lanpostuak”

2013an Vicrila itxiko duela iragarri du Arc Internacional frantziar multinazionalak, lantegiaren jabeak. Ez enpresa-batzordea ez zuzendaritza, ez datoz bat erabakiagaz. Langileek ekin diete mobilizazioei, abenduaren 10ean lanuztea egin zuten. Juanjo Cortesek eman digu euren iritzia.

—Zer eragingo du lantegiaren itxierak?
—Esan daiteke ia eskualde buru dela Vicrila, 400 langiletik gora gara, baina beste enpresa batzuek guretzako egiten dute lan; 1.000 lagun dago denera.
—Zer arrazoi dago Vicrila itxeko?
—Itxiera erabaki politikoa da. Europan gehiegizko produkzioa dauka enpresak eta Vicrilako ekoizpena Frantziara eroan gura du, hango gobernuak babestuta, diru asko emango baitio kanpoko ekoizpena bertaratzeko. Merkatu arazotzat aurkeztu dute, baina Vicrilak dauzka etekinik handienak enpresan. Egitura krisia dauka multinazionalak beste enpresetan; beraz, erabakia politikoa da, ez ekonomikoa. Horregatik jo dugu erakundeetara, gaia politikoa bada, konponbideak politikoa izan behar du. Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu langileak defendatzeko konpromisoa betetze-



Astelehenero egingo dituzte elkarretaratzak lantegiko sarreran

ko. Aldundiari eta Udalari ere eskatuko diegu dagokiena.
—Hainbeste langilegaz, enpresarentzako ez da merkea izango itxiera, ezta?
—Itxiera finantzatzeko erabil dezaketen bideetako bat lurzorua da, berau saltzea. Hori ekiditeko agintariakaz berbetan gabiltza; Udalari eskatuko diogu, enpresa-batzordearen oniritzirik barik, zorua ez berkalifikatzeko. Itxierak inguruko enpresei ere eragingo die, lurra salduz

gero, beste enpresen lurrak saldu nahiko dituzte ondotik. Beraz, inguruneko industriaren etorkizuna dago jokoan, ondorengo belaunaldien lanpostuak. Gure lanpostua defendatu eta borrokatuko dugu, luzea eta gogorra izango da, eta jendartearen babesa beharko dugu. Gaur gu gara, baina bihar bertakoen seme-alabak izan litezke, Euskal Herriaren etorkizun industrial eta bizi kalitatea dago jokoan. ○

Tranbiaren lanak abiatu

gura ditu Eusko Jaurlaritzak **2010ean**, trenak gordetzeko **kotxe-tokia eraikitzeko**



Udondoko bulebarretik igaroko da tranbia, egitasmoaren arabera

2010eko lehen sei hilekoan abiatu gura ditu Eusko Jaurlaritzak tranbiaren kotxe-tokia eraikitzeko lanak. Udan aurkeztu zuten egitasmoa eta obrak urtea amaitu aurretik esleitzeko asmoa dauka Jaurlaritzak. Irailean bost milioi euroko partida gorde zuen lanotarako.
Kotxe-tokia kokatzeko eremua doan emango du Udalak, baina UK aldizkari-ko ale hau amaitzean, oraindik ez zen lur guztien jabe, eta jabeakaz negoziatu behar zuen. Akordiorik ezean lurak desjabetu litzake, horiek Jaurlaritzaren esku lehenbailehen uzteko asmoa baitauka; lanak ere atzeratuko lirateke.
Egitasmoaren arabera, metroa eta EHUren kanpusa lotuko ditu tranbiak,

eta trenak gordetzeko kotxe-tokia da eraiki gura duten lehena. Tranbiaren bidea bera beranduago eraikitzen hasiko dira, datorren uda pasata. Bideak 3,8 kilometro luze izango ditu eta bederatzi galeku. Udondoko bulebarra, Sabino Arana kalea eta Bulebarra gurutzatu, udaletxetik gora hartu eta Sarrienatik pasako da EHUra iristeko. Orotara 30 milioi euro kostako da eta 28 hilabete-tan egin gura dute.
Sestaogaz lotura, barriz, konplexua ei da, baina Urbinagako intermodaleraino eroan gura dute tranbia, metroaren bigarren linea, Renfeko ezker aldeko linea eta Barakaldoko etorkizuneko tranbiagaz lotzeko. ○

UMORE AZOKAN PARTE HARTZEKO IZEN EMATEA
2010eko maiatzaren 20tik 23ra izango da Umore Azokaren XI. edizioa, eta dagoeneko, bertan antzezpenak egiteko izena eman daiteke; urtarilaren 30a baino lehen egin behar da. Beste antzerki jaialdietan antzeztu bako lanak lehenetsi eta estreinaldiak izatea baloratuko dute antolatzaileek. Helduentzako, zein haurrentzako lanak aurkez daitezke, baita musika eta zirku ikuskizunak ere. Azokaren web gunean aurkituko duzu jakin beharreko guztia eta eskabide-orria.
www.umoreazoka.org

SAN JUAN BAUTISTA ABESBATZA DA ONENA
Eta beste bi! San Juan Bautista Abesbatzak Villa Aviles lehiaketa irabazi du (Asturias), Basilio Astulezen zuzendaritzapean. Gainera, Axuntabese deritzon sari berezia ere lortu du Javi Bustoren *Sagastipean* abestiari esker; jatorrizko obrarik onenari eman ohi diote. Aurkeztu egitarauaren zailtasunez gainera, epaileek zein ikusleagoak, biek nabarmendu dute leioztarren gaztetasuna (bataz bestekoa 17 urtekoa), beraien enpaste eta gaitasun teknikoarengatik. Azaroan izan zen lehiaketa eta hamar abesbatzek parte hartu zuten.

EKONOMIA JARDUEREN PARKEA HASI DA LANEAN
Martxan dago Ibaiondoko Ekonomia Jardueren Parkeko lau eraikinetako bat, hipermerkatua; berezko aparkalekua dauka, gainera. Amaia etorbidean dago parkea, Santa Anan. Datozen hileotan hasiko dira altxatzen beste eraikin bi, bulegoak hartuko dituztenak. Horietako batean kokatuko da Udalaren Enpresen Mintegi publikoa eta Behargintzak kudeatuko du; 200 metro koadro izango ditu. Plaza ere egingo dute Ibaiondon, eta lurrazpiko aparkalekua inguruko herriarrentzat, jabetza araubidean.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2

Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO ERROTULUAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA

Tf. 94 430 64 93

OSTEBIDE HORITZ KLINIKAK

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bidebati 27, beheko eskina

ALGORTA

94 430 76 96

Mikel Martin Villacorta > III. Argazki Lehiaketaren irabazlea

“Laborategi baten modukoa da *photoshop*,
likidoakaz egiten zen berbera egin daiteke”

Bilbotar batek irabazi du aurtengo argazki lehiaketa, Mikel Martin Villacortak lehenbiziko saiakeran. Erandioztarrak izan dira, ordea, gainontzeko sarituak. Martin Villacortak ibaiaren elementurik adierazgarrienetakoa erretratatu du: *gasolino*a.

—Lehiaketa irabazi duzu *Oroitzapenak* argazkiagaz, zer berezitasun dauka zure argazkiak?

—*Gasolino*a edo botea hartzeko eskilarak ageri dira, *gasolino*a bera eta buia bat ere ikus daitezke. Bestalde, antzinako argazki baten kutsua emateko prozesatu nuen. Zuri-beltzean.

—Zer helarazi gura izan duzu?

—Erandio eta ibaia zen gaia, eta horri buruz pentsatzen hasita, botea da tipikoen, Barakaldora igarotzen den botea. Horixe transmititu gura nuen: ibaian pentsatzean garai batean langileak alde batetik bestera pasatzen zirenekoa etortzen zait burura, orduko kontu guztiak... Jendeak beti esan ohi du: “*Nolako oroitzapenak!*”, gaur egun, inork ez du eta botean pasatzen. Horregatik eman diot antzinako kutsua.

—Erandiokoan lehenbizikoz parte hartu duzu, baina beste lehiaketatan ere aurkeztu dituzu argazkiak?



fotografia2009.erandio.biz gunean ikus daitezke lehiaketako argazkiak

—Bai, nahiko aurkezten ditut, eta aurtengo, sari nahiko eskuratu dut. Urtean dozena bat lehiaketatan parte hartzen dut, Bizkaian normalki. Hemendik kanpora ez dut gustuko aurkeztea; izan ere, argazki batzuk gero ez dizkigute bueltatzen, gastuak gure kabuz dira edo argazkiak gordetzen dituzte... nahastea da.

—Zaletasun handia, zer ematen dizu?

—Poztasuna ematen dit, asko jostatzen naiz eta bizitza pizten dit. Geroz eta gehiago engantxatzen nau.

—Digitalizazioagaz guztien eskura dago argazkiak ateratzea, eragin positiboa dauka?

—Bai, modu digitalerako urratsa aurrerapen handia da. Likidoakaz lan egitea nostalgiaz oroitzen dute batzuek, baina orain askoz erosoago egiten da gauza bera. Beti dago laborategian ibiltzeko tartea, baina oso gustuko dut kontu digitala. Laborategi baten modukoa da *photoshop*, likidoakaz egiten zen berbera egin daiteke, txundigarria da. ○

Klinika pribaturik handiena

Urtarrilean zabalduko dute **Quiron Bizkaia** Ospitalea; **850 lanpostu** sortuko ei ditu



Azaroan inauguratu zuten Unben kokatutako ospitalea

Urte barriagaz batera zabalduko dute Quiron Bizkaia Ospitalea Goherrin, urtarrilaren 4an. Bizkaiko klinika pribaturik handiena izango da, Quiron Ospitale-Taldeak eta Sabadell Bankuak 80 milioi euro inbertitu dute haren eraikuntzan. Maria Cordon Quiron Taldeko delegatuak jakinarazi zuenez, 850 lanpostu sortuko ditu ospitaleak, horietatik 250, medikuentzat.

EHUk Leioan daukan kanpusetik gertu dago, Unberako bidean, eta 20.000 metro koadro ditu. Bost solairuko eraikin bi dauzka, 150 logela inguru, eta 400 autorentzako aparkalekua.

Guztira 28 osasun-zerbitzu eskaini-

ko dituzte eta “*diagnostiko, tratamendu eta telemedikuntzako tresnarik aurreratuenak izango ditu*”, arduradunen arabera.

Zehazki, 13 kirolfano, 50 kontsultegi, helduentzako eta haurrentzako ZIU bana (zainketa intentsiboetako unitateak), anatomia eta analisi klinikoetarako laborategia eta odol-bankua izango ditu, baita eguneko ospitalea eta onkologikoa. Azken hori izango da zerbitzurik garrantzitsuen, emakumeari dagokionagaz batera (amatasuna, obstetrizia eta lagundutako ugalketa hartzen ditu honek). Armando Cortezonek zuzenduko du osasun zentro barria. ○

DIRU-LAGUNTZA SOZIALAK AGORTU DIRA

2010 arte Udalak ez du diru-laguntza sozial gehiagorik emango, aurtengo aurrekontua agortu delako. Herritarrek krisia dela eta eskatu dituzten laguntzakaz aparteko diru-partida ere agortu da. Ondorioz, azaroko eta abenduko eskakizunentzako laguntzarik ez dute emango seguruenez, Udaletik jakinarazi dutenez.

OLENTZERORI HARRERA AUZOZ-AUZO

Laster iritsiko da ikazkina Erandioko etxeetara eta abenduaren 20tik egongo dira ekimenak. Lutxanan egun horretan bertan egingo diote harrera, 12:30ean. Biharamunean, barriz, Olentzero Goherriko Eskoletatik jaitsiko da Magdalenako errepidetik eta 19:00etan iritsiko da Arriagara. Altzaga Ikastolako frontoira 20:30ean helduko da; iritsi artean txokolatada eta ikuskizuna izango dira. Goikoan 23an aterako dira abestera, 18:00etan, eta ikuskizuna eskainiko dute 20:00etan. Astrabudura eta Altzagara, ordea, 24an iritsiko da. Astrabuduan umeentzako jarduerak eta tailerrak izango dira Mendiguren plazan 18:30ean. Altzagan kalerik kale arituko dira kantuka 18:00etatik aurrera; Mitxelenatik urten eta Irailaren 23a plazan bukatuko dute.

INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA ABIAN

Inauterietako kartela hautatzeko lehiaketa abian da, urtarrilaren 15a arte aurkeztu daitezke lanak. Irabazleak 800 euro eskuratuko ditu. Epailerek baloratuko dute originaltasuna, herriagaz zerikusia izatea, kalitate artistikoa eta teknikoa, inauteriak sustatzeko egokia izatea eta balore etikoak eta ez diskriminatzaileak aintzat hartzea. Lanak 50 x 70 cm-koak izan behar du (ez-etzanak), eta luma-kartoi gainean aurkeztu behar da, kristalik barik.

Informazio gehiagorako: Erandioko Udala eta Astrabuduko Udal Bulegoa



Uribefm
107.8
Goriz Iratia



Basolanak
• Zuhaitz landaketa
• Inausketak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arozoei agur... **Tf. 902 54 08 54**
www.arlan.biz

LARRABASTERRAK BADU ARRETA BULEGOA

Sopelarin izena jarri dio Udalak herritarrentzako bulego barriari eta Larrabasterran kokatu du “*herrian ematen duen zerbitzua zabaltzeko asmoz*” eta “*inguruko auzotarrek egindako eskakizunari erantzunez*”. Udaletxean eskaintzen dituzten zerbitzu berberak eskainiko dituzte bulego barrian ere: “*erregistro jardueragaz harremana daukaten agiriak bidera daitezke, iradokizunak bete, kexak agertu eta erreklamazioak aurkez daitezke, lan-lizentzia eskaera edota jarduerak bidera daitezke, udal zergak ordain daitezke (momentuz txartel bidez), ordainketak etxeratzeko modua dago eta errolda zerbitzua ematen da*”. Hartara, jendaurreko arreta iraunkorra da.

Urgitxieta plazan dago bulegoa eta 09:00-13:30 ordutegian

BIZIKLETA ZERBITZUAK GUNE BARRI BI DITU

Kurtzio Kultur Etxean eta Udal Igerilekuan kokatu dituzte Bizimetaren, Uribe Kostako Mankomunitateko bizikleten mailegu zerbitzua, gune barriak. Bizikletak hartu eta itzul daitezke leku horietan, 10 txirringa daude bakoitzeko. Txartel pertsonala erabili behar da bizikleta hartzeko, Bizi Puntuko pantailako argibideei jarraituz, eta Creditrans txartelagaz ordaindu ostean har daiteke sistemak adierazitako txirrindula.

HERRIKO MAPA TURISMO BULEGOAN ESKURAGARRI

Turismo plano barria egin du Udalak. Aurreko mapak baino kolore argiagoa eta informazio erabilgarria dauka: tabernak, jatetxeak, enpresak... Euskaraz eta gazteleraz gain, ingelerazko eta frantsesezko edizioak ere argtaratu ditu Udalak aurten, “*kalitatezko Q izendapeneko arauak ezartzen dutenari jarraiki eta barritasun gisa*”. Bisitariei herriko turismo informazioa ahalik eta argien emateko asmoa dauka mapa horiekaz. Turismo Bulegoan eskura daitezke.



Izar gazteen distira Uribe Kostako talentua erakutsiko dute gazteek abenduaren 18an, Izarren Distira galan



Getxon ere egin zuten Izarren Distira ikuskizuna azaroan

Piztu fokoak eta sakatu *play*, abestiak zein dantzak, gaztetxoek ikuskizunak prest dauzkate eta. Plentzia, Sopela, Gorliz eta Urdulizko 12-18 urte bitarteko gazteek taula gainean erakutsiko dute euren gaitasuna hilaren 18an, Izarren Distira galan. Kurtzio Kultur Etxean ospatuko dute lehiaketa 19:00etatik aurrera eta Nerea Aliasek aurkeztuko du.

Ikuskizunik onena egiten dutenek ikas bidaiarako 1.000 euroko dirulaguntza edo 6 lagunentzako asteburu pasa irabaziko dute. Gala Uribe

Kostako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak antolatu du, eta beraz, euskaraz izango dira ikuskizunak.

Kastingak egin dituzte dagoeneko eta aukeratu dituzte talde finalistak. Horien artean irabazlea aukeratuko dute Jokin Lacalle abeslariak (Seiren), Tor Magoak eta Jone Uria bertsolariak. Gainera, DJ Oleaktiffek eta *break* dantzariak berotuko dute gala. Sarrera doakoa izango da, gonbidapenak jaso daitezke kultur etxean. Parte hartzaileak luzaketak egiten has daitezke, giroa bor-bor egongo da eta! o

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Felix Mugurutza > toponimia lanaren zuzendari teknikoa

“800 leku-izen dokumentatu ditugu, baina horietatik 120, ez dakigu non dauden”



Abenduaren 17tik 31ra izango da herriko Toponimiari buruzko erakusketa Kurtzio Kultur Etxean

Sopelako toponimia lanaren zuzenketa teknikoa egiten dabil Felix Mugurutza audioarra eta hari buruzko erakusketa prestatu du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen enkar-guz. Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kide da.

—Herriko toponimia bildu eta erakutsi behar duzue erakusketa batean. —Maier Gurrutzagak eta Goizalde Ugartek bildu dituzte datuak. Etxe askotara joan dira eta artxiboetatik atera dituzte, lan horrek dauka meritu handien. Guztira 800 bat leku-izen dokumentatu dituzte, baina horietatik 120, ez dakigu non dauden, eta besteen artean akatsak egon litezke; zortzi kilometro koadrotan izen kopuru handia da, gainera. Horregatik egingo dugu erakusketa, herritarrek kokatu gabeko izen horiek non dauden jakin-go dute agian, eta mapan kokatu ahal izango ditugu. Hortik aterako da

behin-betiko toponimia lana, orain arte egin den onena, eta gainera, izen denak bilduko dituen mapa berria egingo dut. —Beraz, Sopelako izenak gordetzeko ezinbesteko lana? —Izenak galduko dira bestela. Dagoeneko ez dago lurrarekiko harremanik. Lehen nekazariekin, arlo bakoitzak bere izena zeukan, orain ez, Sopelana eta auzoekin nahiko dugu. Adinekoek agian jakingo dute izen batzuk kokatzen. S.O.S.pelana egin nahi nuen nik karte-

«Gure ardura da informazioa pasatzea 500 urte barruko biztanleei»

la, eta seguraski egingo dugu. Etxe guztietara bidaliko dugu erakusketarako gonbidapena. Ahalegin berezia egin behar da, orain salbatzen ez dena ez baita salbatuko, hau da azken aukera. Informazio asko ematen dute izenek, gure ardura da hori pasatzea 500 urte barruko biztanleei. o

DIDAK hamilton

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA iKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINEZKOENTZAKO BIDEEN BARRITZEA

Aurrera darrai oinezkoentzako bideak hobetzeko Udalaren planak. Simon Otxandategi kalearen bide paraleloak dira, horixe da-eta Berangoko erdigunea, eta Getxoko Fadura auzoa lotzen dituen bide nagusia. Duela ez asko esleitu zuten planaren bigarren fasea, Kantinaren eta Arburu bidearen arteko tartea hobetzeko lanak egiteko, eta 123.000 euro kostako da. Tarteak 1.100 metro inguru neurtzen du. Hil honetan bertan amaituko dituzte lanak.

HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLANEAN ALDAKETAK

Lantzarateko egitasmoan aldaketa bat egin du Udalak Hiri-Antolamendurako Plan Nagusian (HAPN). Azaroaren 5eko Osoko Bilkuran onartu zuten HAPN barria, aurreko planari herritarrek hainbat alegazio aurkeztu ondoren. Lehen aldaketa Lantzarateko egitasmoari dagokio eta “U” formako eraikin bakarra egin beharrean, baxuagoak izango diren bost eraikin egingo ditu, ikustean talka txikiagoa eragin dezan. Lurraldeko Zati Planaren arabera Berangon 2.321 etxebizitza eraiki ahal izango da (Babes Ofizialeko 1.184, tasatutako 460 eta salmenta libreko 677) eta herriko industria eremua ia zortzi hektarea handitzea proposatzen du. Berango Eraikitzen plataformak alegazioak aurkeztu ditu, “hirigintza-dentsitate” hori saihesteko asmoz. Euren ustez, herriko “biztanleria bikoiztuko bailitzateke baimendutako guztia eraikiz gero”.



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 48
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Gabonetan lotu barik ibiliko dira **ume eta gazteak**; makina bat **jarduera** prestatu dute **Kultur Etxeetan**

Ludoteka zerbitzua mantenduko dute abenduaren 23an eta 24an

Nork esan zuen oporrak atseden hartzeko zirenik! Berangon ez dira uste berekoak, horren erakusle dira datozen gabonak; izan ere, makina bat ekimen egingo dute Santa Anako eta Berango-etako kultur etxeetan hamazortzi urte-tik beherakoentzat.

Txikienak, 3-5 urte artekoak, ludotekan eta gabonetako kolonietan jostatu ahal izango dira. 6-8 urte bitarteko-ek ere ludoteka izango dute, baina tailerrak ere antolatu dituzte eurentzat: skate, street dance eta sukaldaritza. 9-12 urte arteko gazteek antzeko ekime-

nak gauzatuko dituzte, baina sukaldekoan beharrean, zientziari buruzko tailerrean parte hartuko dute. Azkenik, hamahiru urtetik gorakoak ezin kanpoan utzi, noski, eta videotuning ikastaroa antolatu dute. Antzerkiak ere egongo dira.

Bestalde, haur parkea eta ikuskizunak izango dituzte frontoian: Poco Pico taldearen berbena, Potxin eta Patxin pailazoak, Zirika Zirkus eta Dj Xaibor. Baina informazio gehiago gura duenak herriko kultur etxeetara jo dezake. Ondo pasa, mahaspasa! o

[gorliz]

Ziortza Bilbao eta Carlos Lertxundi > antzerki taldea

“Gure asmoa obra aukeratu eta hori antzeztea da”

Carlos Lertxundi eta Ziortza Bilbao

Urtarriletik aurrera, antzerki tailerra martxan jarriko dute Gorlizen. Ziortza Bilbao eta Carlos Lertxundi izango dira hori zuzentzearen arduradunak. Antzerki zaleak biak, urte asko eman dituzte talde amateurretan. Izena emateko epea zabalik dago liburutegian; parte hartzeko baldintza bakarra, 15 urtetik gora izatea eta gogotsu egotea.

—Zelan heldu zaizue proposamena
—Gorlizko liburutegiko arduradunak antzerki taldea sortzea proposatu zigen. Baietz esan genion; urte asko daroaguz antzerki munduan eta gogo dugu ikasle izatetik irakasle izatera pasatzeko.
—Ze asmo daukazue?
—Taldearen arabera antolatuko dugu ikasturtea. Gure asmoa obra aukeratu eta hori antzeztea da. Dena den, hasieran, taldea ezagutzeko eta konfiantza sortzeko, inprobisazioak eta bestelako

ariketak egingo ditugu. Gorputz adierazpena, ahotsa... denetarik landuko dugu. Garrantzitsua da jendea gustura egotea; horrela, agian, datorren urtean jarraitzera animatuko dira. Helburua herriko jendeak antzerkia egiteko aukera izatea da.
—Nola antolatuko duzue taldea?
—Astean ordu biz batuko gara, marti-

«Helburua herriko jendeak antzerkia egiteko aukera izatea da»

tzen edo eguenetan, 20:30etik aurrera. Orain arte sei lagunek eman dute izena; kopuruaren arabera obra aukeratu dugu. Taldean egin gura dugu dena: obra aukeratu, jantziak egin, atrezzoak prestatu... Garrantzitsua da taldekideek prozesu guztian parte hartzea, talde amateurrek horrela funtzionatzen baitute. o



BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saioak)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf: 645 739 780

Zure beharren araberrako ordutegia





GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

22UK

UK23

MERKATARITZA ETA OSTA-LARITZA DINAMIZATZEN

Gorlizko Udalak eta Uribe Kostako Behar-gintzak udalerriko ostalaritza eta merkataritza dinamizatzeko Gabonetako kanpaina jarri dute martxan. Atxikitzen diren establezimenduek kartela izango dute ikusgai; horietan kontsumituz gero, zenbakitutako tiketa emango dute. Abenduaren 22an, 10 sari banatuko dira txeeetan. Saridunak, Turismo Bulegotik pasa beharko dira saria jasotzera, abenduaren 30a baino lehen.

2. ESKUKO MENDI MATERIAL AZOKA PLENTZIAN

Abenduaren 15etik 22ra, 2. eskuko mendi material azoka egingo dute Plentziako Goñi Portal Kultur Etxean. Plentziarrek, zein ingurukoek abenduan zehar eroandako materiala egongo da salgai: kranpoiak, sokak, motxilak, galtzak, arnesak, botak e.a.

Informazio gehiago: 94 677 55 41

KOSTALDEA BABESTUKO DUTE BARRIKAN

Eztabaida zalapartatsua sortu da azken hileotan Barrikako HAPO eta Barrikabasoko auzia dela eta. Azaroaren 25eko osoko bilkuran, Udalbatzak Barrikabasoren “kalifikazioa aldatzeko proposamena atzera botatzea” erabaki zuen; horrez gain, “indarrean dagoen araudiak zehazten duen kalifikazioaren arabera, eremua babestea” onartu zuen. Eusko Jaurlaritzak “babes bereziko gunea” izendatu du Barrikabaso, hori dela eta, ezingo da bertan eraiki.

URDULIZ

2010-2011 ikasturtean zabalduko dute haurreskola



Arteta kalean egongo da haurreskola

Azaroan hasi ziren Urdulizko Haurreskola izango denaren eraikitze lanak, eta aurreikuspenak betez gero, bederatzi hilabetez luzatuko dira. Lehenengo fasean, eraikina eusteko oinarriak finkatzen ari dira. Exisa S.A. enpresari esleitu zizkion Udalak haurreskola eraikitzeko lanak; izan ere, aurkeztutako proiektuen artean, Exisarena egokiena zela onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz.

2010-2011 ikasturtean jarriko dute martxan Arteta kalean, Kultur Etxearen

eta etorkizuneko Osasun Zentroaren artean egongo den haurreskola. 543 metro koadro izango ditu; adin-tarte bakoitzeko (0-1 urte, 1-2 urte eta 2-3 urte) ikasgela bi egongo dira. Paisaia integratutako forma irregular eta poliedrikoz osatutako eraikin barritzailea izango da. Ikasgelez gain, aldagela, ikasgelak banatzeko galeria, bilera aretoak, erabilera askotarako aretoa, zuzendaria- ren bulegoa, zerbitzu-gunea eta jolasera- ko patioa izango ditu. ○

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA
Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
Tf. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
email: vasa@vasa.biz

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

LEIOA

- Txotxongiloen mundua. Kultur Leioan. Urtarrilaren 15era arte. Doan.
- Kartel erakusketa. Aterpe Gazte Bulegoan. Urtarrilaren 15era arte.

GETXO

- Mari Carmen Cabarcosen olioak. Erromoko erakustaretoan. Abenduaren 21era arte.
- Luis Medina Mansoren akrilikoak eta teknika mistoa. Algortako erakustaretoan. Abenduaren 21etik aurrera.

MUSIKA

LEIOA

- Leioako Gazte Orkesta. Kultur Leioako Auditoriumen. Abenduaren 16an, 20:30ean. 3 euro.
- Kantoria eta San Juan Bautista abesbatzak. Kultur Leioan. Abenduaren 17an, 20:30ean. 3 euro.

ERANDIO

- Musika Eskolako lagunen kontzertuak. Goikoa, Lutzana eta Astrabuduan. Abenduaren 16an, 17an eta 18an.

GORLIZ

- Gabon Kantaldia: Lirain, Gazte eta Txiki abesbatzak. Elizan. Abenduaren 19an, 20:00etan.

ZINEMA

LEIOA

- Kortoak eta solasaldia. Urtzi Perez, Asier Abio eta Jorge Jarelen film laburrak. Kurkudi tabernan. Abenduaren 17an 20:30ean, eta 18an, 23:00etan. Doan.

Ametsen museoa lana antzeztuko du Eidabe taldeak Astrabuduan

► Antzerkia

Umeentzako antzerkiak Erandion

Antzerkiari leku berezia eskainiko diote gabonetan umeei zuzendutako egitarauan. Altzagako azokan abenduaren 26an, 27an, 28an eta 29an antzeztuko dute, hurrenez hurren, *Harritxu maritxu!* Denboraren makinaren abentura (Anne Monna, Oskola eta Karramarroi taldea), *Ali* (Txalo), *Taulara!* (Kuko, Truko eta Bolenwaider) eta *Atxikistan* (Eidabe). Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, barriz, urtarrilaren 2an, 3an eta 4an ikusi ahal izango dira, hurrenez hurren, *Ametsen museoa* (Eidabe), Selvin magoa eta *Murren bidaia* (Behibi's). Saio guztiak izango dira 19:30ean. Sarrerak salgai jarriko dituzte Josu Murueta Kulturgunean eta Udaletxean, euro baten truke.

• Non: Astrabuduan eta Altzagan • Noiz: Gabonetan

- Olentzero eta oparien ardua. Kultur Leioan. Abenduaren 24an, 12:00etan. 2 euro.

URDULIZ

- Olentzero eta edabe magikoa. Kultur Etxean. Abenduaren 23an, 18:30ean.

PLENTZIA

- Ipuin kontalaria. Goñi Portalen. Abenduaren 23an, 11:00etan.

ANTZERKIA

SOPELANA

- Olentzero eta edabe magikoa. Kurtzio Kultur Etxean. Abenduaren 21ean eta 22an, 18:30ean. Gonbidapenak Kultur Etxean.

BERANGO

- Bihotzez, Sambhu Teatro. Berangoeta Kultur Etxean. Abenduaren 30ean, 18:00etan.

BESTEAK

SOPELANA

- Sopesex. Kurtzio Kultur Etxean. Abenduaren 15ean, 22an eta 29an, 18:00etatik 20:00etara.
- Basket eguna. Urko Kiroldegian. Abenduaren 18tik 20ra.

BERANGO

- Elikadura eta nutrizioa. Nagusien Etxean. Abenduaren 14an hitzaldia, eta 15ean, tailerra.
- Kontsumitzaileen eskubideak. Nagusien Etxean. Abenduaren 16an hitzaldia, eta 17an, tailerra.
- Gabonetako III. Pilota Txapelketako finala. Frontoian. Abenduaren 30ean, 19:00etan.

LEMOIZ

- Irteera Izenaduba Basora. Mankomunitateak antolatuta. Abenduaren 18an, 17:20ean
- Armintzan eta 17:25ean Urizarreko autobus geltokian. Sarrerak Kultur Etxean.

ERANDIO

- Bertso-jira: Fredi eta Xabi Paya. Berbotsek antolatuta. Abenduaren 18an, La Plaza tabernan hasita, 20:00etan.

BARRIKA

- Gabonetako tailerrak. Udaletxean. Abenduaren 19an, zapatua, 11:00etatik 13:00etara.

GORLIZ

- Gorliz Irratian 25 orduko maratoi partehartzailea. Irratitik emango dute. Abenduaren 19an, 12:00etatik aurrera.

GETXO

- Getxolandia. Areetako Geltokia eta Erromoko Santa Eugenia plazetan. Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era, baina urtarrilaren 1ean itxita. Sarrera: 6 bidaia 3,5 euro.



Euskal kulturarenak

Getxoko Euskal Kulturaren Jardunaldiek eskainitakoaren printzak dituzu irudiok. Non gozatu izan badugu ere, urteroko leloa errepikatu beharrean gaude, beste behin: egun bat, astea, hilabetea eta urte osoa, pausoz pauso, apurka-apurka, egunez egun, euskaraz minuturo, euskaraz 24 orduz, euskaraz 365 egunez bizi arte badugu, gutako bakoitzak, danok, zer egin! Kantsagarriak izanda ere, horixe bete arte errepikatuko dugu!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ikusi-makusi

zer ikusi? Thalassa goleta-bergantina

Erandio, Lamiako, Areeta, Santurtziko portuko garabiak, Zierbenako haize errotak, itsasoa, burdina, hodi pilatuak, teilatuko gizona, argindar zutoinak... Eta nahas-mahas erraldoi eta malenkoniatsu horren erdian Thalassa goleta-bergantina Bilboko Itsas Museorako bidean. Azaroaren 11n hartutako argazkia duzu, ordutik eta hurrengo urteko martxoaren 10era arte itsasontzi holandarraren barrenak ezagutzeko aukera dago Itsas Museoa. 1980an eraikitako arrantza-ontziak Iparraldeko Itsasoa eta Ingalaterrako kostaldean jardun zuen, 1994an goleta-bergantin bihurtu zuten arte. Geroztik, hamaika portutan hartu du atseden, bisitariei modu didaktikoan nabigazioaren nondik norakoak ezagutarazteko.

Informazio gehiago:
www.museomaritimobilbao.org

[berbetan]

Fermin Muguruza (Irún, 1963). Ez du aurkezpenik behar, ezagutzen ez duenak euskal musikaren inguruan hutsaren hurrena ezagutzen duela esan baitaiteke; bera da eta, birritan pentsatu barik, azkeneko hamarkadetako 10 euskal musikari aukeratu beharrez gero zerrendako lekuren bat beteko lukeena. Kortatu, Negu Gorriak, musikari bikainez inguratuta “bakarkako” jarduna azken urteotan; 25 urteko ibilbidea, eta musikak ezagun bihurtu badu ere, lasai asko esan liteke, musikari baino gehiago izan dela euskal kultura. Amodio zein gorroto, ezin ukatu badela nor euskal musikarentzat, euskal kulturarentzat eta horiek nazioarteari ezagutarazteko zein euskaldunoi urrutikoak hurreratzeko zubi izan dela.

Fermin Muguruza

beti legez, zubigile

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—*Checkpoint Rock. Canciones desde Palestina* ez da zineagaz izan duzun lehen afera. —Pelikula baterako soinu-banda egin dut eta aurretik beste zenbait film laburretarako ere. Zinearena aipatzen dudanean, Jamaikako grabaketaren inguruko dokumentala ere aipatzen dut. Baina, aurretik ikus-entzunezkoan izandako eskarmentua ere hor dago, bideoklipak Kortaturen garaitik, Negu Gorriakekin ere dokumentatzen genituen birak eta... Beraz, atal honek betidanik izan du nire arreta, edo garrantzi oso handia niretzat; eta landu izan dut. —Berrir ere zubigintzan lanean, elkartasuna modu askotan lan daitekeela erakusten. Topagunea musikarien bizipenak; harresiak erausteko beste bide bat da musika. Baina Palestinako musikarien dokumentala baino askoz gehiago da lan hau. —Laburrean, hemen bizitza osoan finkatu, trinkotu ditudan ildo asko daude. Horieta-ko bat da musika, beste bat elkartasuna, bestea bidaia, baita zinea ere. Badira hor batzen diren zenbait lan ildo. Batez ere, ezinegonari bide emateko ahalegina dago. Kasu honetan, Palestinan dauden eta beste alde-

an kokatzen garen musikarion artean horrelako komunikazio zubia eraikitzea. —Betidanik jorratu dituzun gaiak: inkomunikazioa, internazionalismoa, jaia, auzolana, aldarrikapena... Ondotik, Palestina bizitzeko gogoz dagoen herria dela irudikatu duzue, denaren gainetik bizi dena; bizi bada kulturak ere taupadaka dirau, musikaren energiak islatu du hori dana. —Musikak, azken finean, babestu egiten duelako jendea. Badagoelako abesteko beharra, badagoelako kontatzeko beharra

“Negu Gorriakekin ere esaten genuen “kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko”; hango batek ere hori esan digu”

musikaren bidez, badago arnasteko beharra den zerbait. Negu Gorriakekin ere esaten genuen, “kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko”; (dokumentalean) hango batek ere hori esaten digu, argi eta garbi. Gero, okupatuta dagoen herria, nortasunaren edo izaeraren inguruan eztabaida etengabea denean... Baina gainera badago konturaztea ere, musikaren bidez, badela herri

bat izena duena Palestina eta bere kantuen bidez bizi dena. —Nortasuna aipatuta, dokumentalaren hasieragaz eta Mahmoud Darwish Palestinako poeta nazionalagaz lot daiteke. Bere eragina *Jartzazu!*, mesedez, begi aurrean. —Oso ondo azaltzen du Suhell Nafarrek, bidaia, *road-movie* antzeko honetan nolabait gida lana egin duenak. Musikariak eta taldeak aurkezteaz gain, kontatzen digu zer izan zen berarentzat ere Mahmoud Darwish hiltzea, eta bukaera aldera, esaten

digu berak nahiko lukeela Mahmoud Darwish bezala sentitu, nahiko lukeela beti pentsatu hura bezalakoa dela. Hori oso gogorra da; niri beste elkartasun bidaia batean ikusitakoa gogorarazi zidan: Kuban esaten zuten Che Guevara bezalakoak izan nahi zutela. Arraioa, zer zoragarria den! Halere, bada detaile bat: normalean herrietako heroiak borrokalariak edo, halako



konnotazioa izaten dute; ordea, hemen poeta bat izatea, zoragarria da! —**Ez da Palestinara egiten duzun lehenengo bidaia, ez da bidalitako lehen elkartasun mezua** (“Yalah! Yalah Ramallah” kanta e.a.) —2002an izan zen lehena, oso-oso latza; beti azaltzen dut jendeak uler dezan: Marlon Brandok *Apocalypse Now* film amaieran esaten duenean “*El horror!*”, bada hori dela nik ere han ezagutu nuena. Orduan pentsatu nuen kantu bat egitea, beti neukan buruan, saiatzen nintzen... 3 urte kosta zitzaidan “Yalah! Yalah, Ramallah” sortzea! Gainera, buelta eman nion; banuen beste modu batez egitea, baina kantu alaia, jai-girokoa, ospaki-zunetakoa egin nuen, esanez bezala: “*seguru egunen batean libre izango zaretela, orduan denok joan beharko dugu ospatzera Ramallah aldera*”. Baina, latza izan zen, asko hitz egin zen hartaz, Paul Nicholsonekin ere egon ginelako, kanporatu gintuztelako, 2 urtetan ez sartzeko debekua... Duela pare bat urte berriro joateko aukera izan nuen, orduan hasi nintzen pixka bat lantzen pelikularena. Hala ere, taldeekin harremanetan hasi nintzen DAM taldea gonbidatu nuenean 18/98 sumarioan auziperatuen aldeko kontzertura BEC-en, *Euskal Herria Jamaika Clash* aurkeztzen nuela. Elkarrekin abestu genuen “Yalah! Yalah Ramallah!”, benetan, itzela! —**Al Kasaba zineman (Ramallah) ere eman zenuten lana, protagonistakaz, gainera.**

—Itzela! Pelikula beraiei, protagonistei, entregatzea itzela izan zelako; azken finean, pelikula beraiena zen eta da. Lortu genuen zinema horretan egitea, musikari guztiek check-point guztiak gainditzea lortu zuten, heltzeko batzuk goizeko 07:00etan atera ziren edo aurreko egunean, han elkartu ziren guztiak, senideak ere, kaleko jendea, musika jarraitzaileak, baita Palestinako autoritateko hainbat jende ere. Jendea kanpoan, eta barruan kontzertu bat izango balitz bezala, zerbait oso-oso handia ospatzen ari zen ekitaldi bat. Ezin bereziagoa, askotan aipatzen dut nire bizitzan bizi izandako punturik altuenekoa izan zela. Horren ondorioz, pelikula errefuxiatu guneetaraino mugitzea lortu

genuen: Nablus, Jenin, Jerusalem Bethlehem e.a. Uste dut egin nahi genuena lortu genuela; are gehiago, oraindik izaten ari den oihartzuna izugarria izaten ari delako. —**Ostera, Euskal Herriko aurkezpenera etortzeko batzuei ateak itxi zizkieten.** —Oso latza izan zen, konbentzituta geundelako lortuko genuela; hasieran ez, baina, Donostiako Udalaren laguntza lortu genuen:

“Marlon Brandok Apoclipse Now amaieran “El Horror” esaten duenean, hori da neuk ere Palestinan ezagutu nuena”

nean, Giza Eskubideen departamentuaren bidez, lortu genuelako Israeleko enbaxadaren ateratzeko baimena, erosita geneukalako Kairotik etortzeko txartela... Baina han dau-den zonalde bakoitzeko *check-point*, muga bakoitzeko nagusien zigorgabetasun izugarria ikusi genuen! Erabaki zuten egun horretan, gerora aste osoan, muga itxita zegoela, eta kitto! Gainera, bera asko sufritu duenetakoa da, bere aita hil zuten azkeneko bonbardaketetan, bere etxea suntsitu... Sekulako ilusioa zuen etortzeko, nik uste beharra ere bazuela, osasun fisiko eta psikikoaren aldetik, arnasa hartzeko, beste musikariekin elkartzeko... Birritan saiatu zen; baina esan zioten berriz ahalegintzen bazen tirokatuko zutela, ez hurbiltzeko berriz mugara. —**Izandako hedapena espero zenuten?** —Helburu batzuk jarri genituen; saiakera

“Ramallah-n egindako aurkezpena oso-oso berezia izan zen, nire bizitzan bizi izandako punturik altuenekoa”

izan zen Al Jazzeerak eskubideak hartzea, herrialde arabiarretan proiektatzeko, baina lortzea espero genuen; halere sekulako lorpena da. Itzela izan da zinema aretoetan jartzea lortzea; esfortzu handia egin dugu. Laguntza handia izan zen Donostiako Zinemaldian egotea, arrakasta izan zuelako eta han egon zelako BartonFilms banatzailea, eta erabaki

zuelako hartzea. Halere, ezin esan zinema aretoetan arrakasta handia izan duenik, gurean aste bat baino ez zuelako iraun, Madrilen eta Bartzelonan gehiago. Gurean, ordea, kultur aretoetatik ere mugitzen jarraitzen du; oraindik bide luzea duela uste dut, leku pilotan iragarrita dago. Izaten ari den oihartzuna benetan izugarria izaten ari da. —**Dokumentala ez da zale asko dituen ge-**

neroa; baten batek pentsa lezake Palestinak baino, lanak atzean itzal handikoak izateak erakarri dituela zaleak. —Zer diozu, nik egin dudalako? —**Bai; zuk, Corcuerak, Anton Reixak e.a.** —Hori ez zait gehiegi axola. Disko bat egiten badut, interesa pizten lehena Fermin Muguruzak egin duela da. Baina, hori ez da inork ezer eman didalako, baizik eta 25 urteko lanaren ondorioz lortutako zerbait. Pelikularekin ere ikusmina piztu bada izan daiteke hor ere osagai guztiak ipintzen ditudalako elkarrekin. Dena delakoa, gehitzeko baldin bada, nik uste positiboa dela: batzuentzat Palestina-ko gaia interesgarria delako, gainera, hori musika ikuspegitik ikusita, orain arte inon erakutsi ez dena, bada are gehiago. Gero, horretan ibili badira bi pertsona ezagunak direnak bakoitza bere esparruan, garen bezala ni

rez emanda dagoena bizitzan egin dugun i-bilbidearen arabera. Horrek lagundu badu pelikula hau ikus dezaten, ongi etorri! —**Chiapasen elkar ezagutu zenuten Corcuera Perukoa, zu euskalduna; filmaren atzean ere bada nazioarteko egileen lankidetza.** —Jordi Abusada argazki zuzendaria ere perutarra da, biak ezagutu nituen Chiapasen. Mexikoko aurkezpenean ere esan nuen, pelikula

“Euskal musika erdi blokeatuta dago; hamarkada honetan, talde oso gutxi atera dira; gabezia handia daukagu”

hau horrela baldin bada nolabait zapatistengatik ere badela; zapatistek elkartu gintuztelako. Batzuetan bizitzak elkartu egiten du jendea, asturuak, patuak bideratu egiten ditu zenbait kontu. Hori medio bat-batean ezagutu genuen elkar, han; gero gauza asko egin ditugu elkarrekin, azkena, hau. Bai, filmatze taldean egon da nazioarteko topaketa bat: perutarrak, Angel Katarain eta biok euskaldunak, Juanma Lopez Madrilgoa, Mariano Agudo andaluziarra beste kamerarekin, produktzioan Galiziako laguna, palestinarrak: Fidaa Hammod zuzendari laguntzailea, bes- telako laguntzaileak.

—**Israeli boikota (kulturala ere) egiteari...**

—Oso zaila iruditzen zait gaia, konplexua. Kulturaren inguruan landu beharko genituzke zubi-lanak. Ez dut ikusten boikotarena, oso eremu labainkorra delako, kultur mailan. Beste gauza bat da ekonomian edo bestelako esparruetan. Hemen eredia Hego Afrikarekin gertatu zena da, baina beste tes- tuinguru sozio-politiko batean gaude, zen- bait gauza aldatzen dira. Ezin ahaztu, Hego Afrikan ere, hango musikariekin sekulako harremana sortu zela eta bazegoela haien ar- tean musikari zuri bat, Johnny Clegg & Savuka. Nik, gehienbat, kultur arloan egingo nukeena izango zen bideratu, ahalbidetu eta indartu harremanak, saiatu ezagutarazten, hangoekin harremana sendotzen. Musikari- ok hasi gara egiten, pelikularekin, eta zenbait festibaletan ere ari dira kontzertuak ematen,

beste musika taldeekin ere harremanak egi- ten... Baina, badira unibertsitateak, idazleak e.a. Posible dute hangoak gonbidatu etortze- ko. Batez ere hori izango litzateke niretzat bi- dea, zailagoa, bai, lan handiagoa eskatzen duelako. Boikot kulturalarena, egia esan, ez dut ikusten. Kultura beti eraikitzeko delako; ateak irekitzeko, ez ixteko. —**EHtik kantak bidali beharko bazenitu...**

—Iruditzen zait euskal musika erdi blokeatu- ta dagoela. Ez dakit zer gertatu den hamarka- da honetan, talde oso gutxi atera dira, euska- raz abesten, euskaldunak. Ez dut ikusten 20- 30 urteko gazte talderik, publiko pixka bat erakartzen dutenak. EHko 10 talde hartu? Pentsatu beharko nuke! Orain gabezia han- dia daukagu. Azkeneko talde horrela gaztea... Kerobia edo, bestela... 90. hamarkadan ia urtero irteten ziren pare bat talde, arrakasta- rekin, jendea eramaten zutenak, orain... Hor gaude jende asko dagoeneko urte asko dara- matzagunak, nik 25 urte, gero 90eko beste belaunaldia Anari, Su Ta Gar, Berri Txarrak, eta igoal Ken 7 azkenetakoa... Gainontzean denbora beharko nuke 10 talde aukeratzeko.

Beti, orain gehiago, jarriko nukeena, ezbairik gabe, Mikel Laboa. Esan zidatenean, Mahmoud Darwish, musikaria ez, baina po- eta bezala zelako eragina izan duen, bada he- men, esan nuen: hara! Mikel Laboa; bizitzan esparru guztiak ukitu dituelako, musikako jende guztia nola kutsatu zuen, zentzu onean! Horren lekuko da duela 20 urte kaleratutako Txerokee, omenezko diskoa; itzela izan zen, garai hartan hardcore, pop, heavy, hip-hopa zelako nagusi, eta bera bere kantuak eginez! Polita izan zen. Gainera, egin zituen kolabo- razioei begiratuta: Ruper Ordorikarekin ze- goen, baina baita Lisabörekin ere, edo Naizroxarekin, horiek Irungo Moskuko jaie- tan ikusi nituen, itzela iruditu zitzaidan, pro- posamen muturrekoa, basatia! ○

Durangoko Azokaz eta esku arteko ekimenez

—**Durangoko Azokak hamaika eztabaida: Azoka bera, autogestioa, musika merkatua...**
Zuk ere *Asthmatic Lion Remix eta beste harri- bixi batzuk* Azokaratu dituzu.

—Durangora noan 4. urtea da, Talka nire zigiluare- kin. Urtean zehar alboratuta dauden eztabaidak beti Azokaren garaian berragertzen dira, ehun mila euskaltzale Euskal Herriko ekoizpenak babestera mugiarazten dituen merkatuaren momentua dela- ko. Autogestioarena? Musika munduan nabilene- tik, hasieratik, independentziaren bidea eta auto- gestioarena izan da nire apustua; kondizio politiko- agatik, argi eta garbi. Orain beste garai batzuk bizi ditugu, zenbait benetan kondizioz sartzen ari da autogestioan, beste zenbait beste biderik ez dau- kalako; baina, agian, bada beste modu bat ikuste- ko zein gozagarria den autogestioa! Nik garaipen txiki bezala, aipatu ahal dizut Ken 7koak etorri zire- la nirekin hitz egitera, aholkua erabiltzea ez zait gustatzen, nire eskamentuaren ondorioz nire esperientzia entzutera. Eta Azokan egon dira stand batekin, beraien diskoetxearekin. Durango, behar- beharrezkoa da nahiz eta beti egon hobetzekoak. Normala da kritikoenak gazteenak izatea, ez dute ezagutu hona ailegatzeko zenbat borrokatu behar izan genuen, honelako baldintzak lortzeko: hotzik egiten ez duen lekua. 25 urtean etorri naiz Azokara eta badakit zer zen elizaren arkupetan, gero karpa- pean egotea. Bestalde, betidanik esan dut beste azoka bat antolatu beharko zela beste tokiren batean, Irun-Hendaian izan zitekeela, beste pun- tan, toki enblematico batean, non urtarritetik ekai- nerako ekoizpena erakutsiko zen, erakusleiho moduan; azken finean, hori baita Durangoko Azoka. Baina ez da inoiz inor animatu egitera, aus- kalo zergatik. Baina niri oso inportantea dela irudi- tzen zait, momentu horretan lortzen dugulako urte osoan lortzen ez dugun oihartzuna. Hori ona ala txarra da? Ona. Beste garaietan ere lortu beharko genukeena? Dudarik gabe. Jende piloak ez du ideiarik ere, ni Fermin Muguruza izanda ere, (lehen esan duzuna jendea pelikula ikustera ni na- goelako...) jada urtebete atera nuela *Asthmatic Lion*. Euskal kultura gero eta baztertuago geratzen ari zaigu, bi egunkarietatik, bi hedabideetatik atera- ta, besteetan ez gara existitzen; ez dute jarraitzen. Oso zaila da horrela jendeak jakitea zer gauza egi- ten ari garen Euskal Herrian sortzen ari garenok.

—**Zuk esana: “*Lennonek esan zuen abestiek egunkari modukoak izan behar dutela, zerbait gertatu eta ziztu bizian hasi kantua idazten*”; zertan zabiltna?**

—Ideia polita da: gaurko baliabideekin egin daite- ke; blogak bezala, hori ere. Orain ez daukat ener- gia hori -barreka- igoal garai batean bai, edo agian neuk ez; baina, 90. hamarkadan Esan Ozenki zuzentzen nuenean, posible zen, diskoak kalera- tzen etengabe, ia hilero bat, edo talde baten aurki- kuntza... Baina, uste dut adinak energia neurrin ematen dizula, orain beste modu batez bideratu behar ditud indarrak. Pelikularen ekitaldiak presta- tzen, diskoarekin, eta *Pintxatu* (pintxo errezetak kantuetan oinarrituz) disko-liburuarekin nabil; azken hori ekoizpen ausart eta zoragarria iruditzen zait, oso ludikoa, badu elkartasunarekin, nazioartean zubiak sortzearekin lotura. Etengabean, aktibismo- an, horretan nabil: bizitzak momentu eta une bakoitzean uzten dizkigun aukerak baliatuta.



Mundua taula gainetik

Surfa eta bidaia oso lotuta doazen bi kontzeptu dira. Alde batetik, taula gainean olatuen artean bidaiatzen dutelako surflariak; bestetik, bidaia zale amorratuak izaten direlako. Horrelakoa da Iker Basterretxea sopeloztarra. Surfa eta bidaiak pasio eta argazkilaritza ofizio ditu. “3sesenta” surf aldizkarirako, zein beste zenbait publikaziotarako behar egiten du. Oraingoan, Irlanda, Indonesia, Panama, Euskal Herria eta munduko beste hainbat txokotan hartutako irudiak batu ditu UKko fotografia atalerako.

Argazkiak: **Iker Basterretxea**









BETIKO

IKASTOLA

GUERE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA

• 0 eta 16 urte bitartean
kalitatezko hezkuntza
euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik.
Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa,
jantokia, merienda,
zaintza.

• Eskolaz kanpoko
aktibitate ugari.

• Leioako ikastolen
Elkartearen ikastola
bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA


Alangobari 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Zinea euskaraz

Zinema Bultzatuz-ek **euskarazko edota euskarara bikoiztutako 40 film** aukeran



Supertamps (urt. 2, 17:30) filma da KulturLeioan emango dutenetako bat

Azken boladan emoten du zinearen eta euskararen arteko harremanak hobera egin duela, edo bikote-bitartekaritzako esku-sartzea lagungarri izan zaiola; oraindino ere harremana sasoiaren egoteko eta egonkortzeko laguntza beharra egon badago ere.

Alde batetik, joan barri den azaro amaieran Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren ekimenez Euskal Zinemaren Astearren barruan *Eutsi!*, *Barriola San Adriango Azeria*, *Golazen*, *Cristobal Molon*, *Munduaren bira*, *doan!* eta *Zorion Perfektua* filmez gozatzeko aukera egon zen Sopela, Lemoiz, Urduliz eta Gorliz. Bestalde, Zinema Bultzatuz ekimena ipini dute martxan Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailak eta Euskadiko Fil-mategiak, horretara 100.000 euro bideratuz. Ekimenaren helburuak Gabonetako oporretan (abenduak 2-urtarrilak 6) euskaraz ekoiztutako eta euskarara bikoiztutako filmak emotea da, horien eskaintza are-agotzea. Sei zinemak (horien artean Bilboko Renoir zinemak, zein Multi zine-

mak eta Basauriko Bilbondo zinema) eta 19 udaletako zinema aretok (horien artean KulturLeioak) bat egin du ekimenagaz. Bakoitzak erabakitzen dituen filmak (40 daude zerrendan, gehienak haur-gazteei begirakoak) aukeratzen duten egunetan emongo dituzte. Berbarako, KulturLeioan 5 film emango dituzte: *Olentzero eta oparrien ordua* (hilak 24, 12:00), *Supertramps*

«**Ekimenagaz bat egin dute besteak beste: Renoir, Multi eta Bilbondo zinemek zein KulturLeioak**»

(urtarrilak 2, 17:30), *Pluk eta bere garabia* (urt. 3, 17:30), *Betizu eta urrezko zintzarria* (urt. 4, 17:30) eta *Donaemon eta Hego itsasoetako piratak* (urt. 5, 12:00).

Ostera KulturLeioatik adierazi dute-nez “*badira urteak zinea euskaraz emoteko ahalegina egiten dugula, estreinatu bezain pronto emoten ditugu; hilean behin bat, urtean 12-15 bat bai; kontua da gixi direla urtean barriak eta dagoeneko ia guztiak emon ditugula*”. ○

Aupa, Maurizia! aire-aire!

Zeberioiko ahots basatidun pandero jolearen **biografia** atondu dute **Paia&Payak**




Hasieran Benantzio Bernala “Karakol” senarragaz osatu zuen bikotea, gero Fasio (trikiti) eta Leonegaz (alboka)

Maurizia Aldaiturriaga (Zeberio 1904-1988) ahots berezi eta indartsudun pandero jolearen biografia, pertsonala zein musikala, atondu dute Fredi Paia eta Xabier Paya anaia algortarrek, Bizkaiko Trikitixa Elkartek argitaratu duen *Aupa, Maurizia!* libururako (15 euro). Lanaren aurkezpenean eta geroko adierazpenetan, urte eta erdiko informazio bilketaren ostean, egileek lanean batu dituzten hainbat kontu jakinarazi dute, esaterako: Zer zuen Mauriziak? Zerk egin zuen berezi hainbeste jenderengana heltzeko? Zergatik dauka hainbeste jende oraindino gogoan? Galdera horiei tiraka abiatu dute lana, zati bitan bana dai-

teke: lehenengoa biografia pertsonalaren inguruan (txikitatik jotzen zuela panderoa, bakarririk ikasi zuela, 12 urteagaz egin zuela lehenengo plaza e.a.), anaia gazteenak prestatu du eleberritiloi, “fikzio” apur bat ere tartekatuz; bigarrena, anaia zaharragoak egin du eta pandero jolearen alderdi eta eragin musikala jorratzen du. Horren albotik, erromeriarako zuen jarraera, eragina e.a. azterten dituzte, hainbat euskal musikariren iritziak ere bilduz; berbarako, Hertzainak-eko Josu Zabalarena, “*euskal rockarentzat beste gauri bateko punkirik punkiena zen*”, edo bere eraginaren adierazle den Korrieten lehen diskoko Mauriziaren sarrera. ○

diskoak

Katuek bezala
The Uski's
Baga Biga



Katuek bezala, The Uski's taldearen hirugarren lana ere hormetatik igotzen da, lurrean egoteko gogo gutxi du, dantza alaiak dakar. Berrituta dator taldea, baina betiko soinutik aldendu barik. Kantuak, bakoitza bere nortasunagaz, pentsa liteke taldea desberdina dela kantutik kantura, baina horrek ematen dio batasuna diskoari.

Jimmy Arrabit Trio
Jimmy Arrabit Trio
Gaztelupeko Hotsak



Jimmy Arrabit bateria jotzaileak (King Mafrundi, Itoiz...) gidatu du Fred Feugas piano jotzaileak eta Xabi Hayet kontrabaxu jotzaileak osatutako hirukotea. Jazzak rock eta folk elektronikoa ditu elikagai lan honetan. Jazz lengoaia erabiliz sortutako lehen lana du Arrabitek, baina nabari da iturri horretatik asko edan duela.

Zarama zuzen!
Zarama
Elkar



Indarrez hartu dute ezkerrekoek tauletara buelta. Hamabost urte erretiroan egon ostean, zuzeneko heldu diete aurten barriro, eta hona hemen emaitza: *Zarama zuzen!* lana. Abuztuaren 18an grabatu zuten Bilboko Aste Nagusian eskainitako kontzertua. Audioan zein bideoan grabatu zuten, CDa eta DVDa biltzen dituelarik.



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkeztzen baduzu
%50eko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Ipupomamua saioa

Literaturari telebistak egiten dion keinua, oro har, **haur eta gazteei begirakoa**

Fantasiatzko ipuinetako istorioen lako egitasmo ederra legez aurkeztu zuten 2004an Ipupomamua: Asteasun eraiko zen haur-gazte literaturari begirako parkea. Esan liteke, parkearen historiak, tradiziozko ipuin zaharren gaur egungo bertsio edulkoraturtik urrundu, eta haien jatorrizko beldurgarritasuna berreskuratu edo egin duela. Momentuz, ez dago egitasmoari mosurik emango dion printze urdinik (bitartean protagonistek ere istoriotik ihes egin dute). Osera, zorionez, emoten du printzesak bere kasa iratzartzea (erne ala erdi lo dagoen bakoitzak iritzi diezaiola) erabaki duela bost urte eta gero, eta bere jauregia

«Eguenetan 21:30ean ETB3 katean eskaintzen da saioa»

telebistan jaikitzea hautatu du. Anjel Alkainen ideian oinarrituz On Time-ko ekoizten du *Ipupomamua* telebista saioa (eguenetan, 21:30ean ETB3 katean; barikuetan 19:30ean ETB1en), Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxaren eta ETBren babespean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz.

Balizko parkeari, horrenbestez telebista saioari ere, Bernardo Atxagak (Jo-



Nagore Aranburu (Argazkia: EITB)

seba Irazu; Asteasu, 1951) eman zion izena, eta ipuina, poema eta marrazkia zein mamua biltzen ditu deiturak. Nagore Aranburu aktoreak aurkeztzen du haur eta gazte literatura jorratzea eta bultzatzea helburu duen saioa, eta momentuz ekainera arte eskainiko dute, hau da, guztira 35 programa. Horietan ardatz izango den gaiari tiraka liburutegi, kultur etxe, e.a-etatik bidaiatuko du abenturak, idazleen barri emanez, elkarriketak, ilustrazioak, azken argitalpenak, zineagaz loturak e.a. zeharkatuz. ○

Aurreko emanaldiak ikusgai:
www.eitb.com/bideoak/telebista/ipupomamua

liburuak



Xahmaran
Jon Arretxe
Erein

Nobela beltz honegaz, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen digu Arretxek beste behin ere; oraingoan Munich eta Istanbul artean kokatu ditu pertsonaiak: Kawa, hiltzea ogibide duen gizona; gurgildun aulkian preso dagoen ama; Alemaniara alde egin duten anai-arrebak...



Los crímenes de Franco...
Iñaki Egaña
Txalaparta

Frankismoaren alderik gordiena aurkituko duzu argitalpen honetan. Frankoren jarraitzaileek sei mila euskal-dunetik gora hil zituzten. Orain gutxi egindako ikerketa batean, horietako askoren izen-abizenak argitaratu dira; baita, izua sartzeko erabil-tako metodoak ere.

[kirola]

Eutsi gogor! Hori dok/n eta!

Uribe Kosta osoan **euskararen erabilera kirol esparruan bultzatzeko** kanpaina



Kirolariak kanpainaren aurkezpenean

Bizkaiko 16 udaletako mankomunitate bitako euskara zerbitzuek martxan dute (Alkarbidek eta Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilguneak koordinatuta) Euskararen erabilera eskolako kirol esparruan sustatzeko sentiberatze-kanpaina. Horien artean daude eskualde guztiak Erandio, Leioa eta Getxoko udalakaz batera, Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen dutenak: Sopena, Berango, Urduliz, Lemoiz, Plentzia eta Gorlizkoa. Ekimena azaro erdialdean aurkeztu zuten eta urte amaiera arte egongo da abian. Oraingoan lau kirol mota aukeratu dituzte futbola, arrauna, esku-pilota eta saskibaloia; horietan ezagunak diren kirolariek bat egin dute kanpainagaz, euren irudia agertuz Bizkaiko leku esanguratsuetan ateratako argazki-posterretarako; horietan parte hartu dute: Iraia Iturregi eta Koikili Lertxundi (futbolariak), Imanol Agirre eta Oier Zearra (pilotariak), Izortz Zabala (arraunlaria) eta Javi Salgadok (saskibaloia jokalaria). Banatu diren horma-irudiez gainera, kanpainaren baitan beste motatako euskarriak ere prestatu dituzte,

berbarako: Aixerrrotako boleibol emakumezko taldeagaz egindako “Gorputza bizkor eta mingaina sasoiari” luzatze-eraketan liburuxka (luzaketak euskaraz egiteko hiztegia e.a.); egutegia, datozen kirol-saioen oharak hartzeko tarte eta animatzeko euskal oihuak batzen dituen triptikoa, *making-off*-a, egindako webgune txikian ikus daitekeena ekimenaren informazioa-

«Luzatze-eraketak euskaraz egiteko, euskarazko animo oihuak jaisteko e.a.»

gaz gainera (lotura Getxoko Udaren gunean badago). Horrez gainera, animatzeko oihuak jaisteko plataforma ere ipini dute martxan (5195-era mezua bidaliz sa-kelekora jaits daitezke).

Sustatzaileek jakinarazi dutenez ekimenari jarraipena emoteko asmoa dute, eta hurrengo urterako txirrindularitza, errugbia edo surfa ardatz izan daitezen proposamenak darabiltzate buruan. Erronka handiena, berbarako San Mamesen, euskarazko oihuak entzutea? ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA



350

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 81

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.

- MAIKA GUZTIAK
- 24 OREKUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETERAKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUARI
- BITESSA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Fatma Galia M. Salem > idazlea

“Kultura eta errepresioaren artean bereizi beharra dago”

“*Nada es eterno. Poemas saharauis para crecer*” liburura batu ditu bere poemak Fatma Galia M. Salemek. Sahararra sortzez, Bilbon bizi da. Liburua aurkeztu zuen azaroan Getxon, Udaleko Berdintasuneko Zerbitzuaren Jabekuntza Eskolan, Munduko Emakumeen Literatura ikastaroaren baitan. Gaia bera gainditu eta emakumeen egoerari buruz eztabaidatzeko aukera izan zuten.

—Getxora iritsi zara gaur.
—Bai, nire liburua aurkeztea egokitzen zitzaidan eta.
—Poema liburua da, ezta?
—Hogei urteko antologia da, egin du-dan poesia ia guztia sartu dut. Bisitatu ditudan lekuen ibilbidea da, ekintzak, salaketak, kexak... Lan heldua da, zorrotasun handikoa, eta bihotzez egi-na. Hazteko saharar poemak dira.
—Aspaldiko poemak dira, beraz?
—Badaude aurten idatzitako poemak, baina besteak aurretik idatzitako liburu-etakoak dira. Beraz, antologia bat da.
—Baina zergatik poemak batu?
—*Ezer ez da betiko* izendun liburu bat osatzeko beharra sumatu nuen. Ideia ona izan zen, hainbat liburutan solte ze-goen nire poesia bere osotasunean gor-detzeko.
—Saharako egoeraz berba egiten duzu?
—Saharako egoera, bertakoa, immigra-zioa, bazterketa soziala, Afrika, bertan pairatzen duten pobrezia, pateretan datozen pertsonak, artea, kultura... denetariko gaiak landu ditut.
—Zer ekarpen egin dizu?
—Hazi egin ninduen liburuak, eta be-



Fatma Galia Algortako Villamonteko Kultur Etxean

raz, jendea ere haz dadila gura dut.
—Nolako harrera egin diote?
—Ona, egia esan. Emakumeak poema-kaz identifikatzen du bere burua.
—Poesia bakarrik idazten duzu?
—Ez, bestelako generoak ere landu di-tut. Nire lehen lana poema liburua izan zen, baina gero tatuajeak eta *henna* kul-turari buruzko bat idatzi nuen. Azken aurrekoa, barriz, nomaden ahozko tradi-

“Poema auto-biografikoak dira eta ezagutzen ditudan gaiak eta lekuak islatzen dituzte”

zioari buruzkoa izan zen. Ipuinak, kon-dairak, alegiak, poemak, esaera zaha-rrak, txisteak eta aho-korapiloak ere ba-tu nituen liburu horretan, denetarik.
—Gaur Getxon aurkeztu duzu, baina ez da liburuaren estraineko aurkezpe-na, eta gainera, eztabaida egin duzue ondoren; zer jaso duzu aurkezpen ho-

rietan guztietan?
—Gaur liburua aurkeztu dut, hainbat poesia errezitatu ditut, dauzkadan one-netarikoak, aurkezpenetan egin ohi dudana legez. Horren ondoren sartu gara eztabaidan. Saharar kultura, emakume-en aurrera egitea edo jabekuntza, beraien rola, zer aldatu behar den, zer dagoen egiteko... eztabaida nahiko ede-rra izan da.

—Eta zer ondorio atera dezakezu?
—Nik uste informazio asko ekarri du-dala, baina asko jaso dut. Emakume hauengandik ikasi eta nire kultura eta herriaren problematika transmititzen saiatu naiz, nahiz eta eztabaida konple-xua izan ingurune honetan; hots, zapia jarri eta euren ohiturei atxikitzen zaiz-

kion emakumeak badaudela ulertzeko zaila den ingurunean. Horretan datza eztabaida: ohiturak, usadioak ere herri bakoitzaren identitatearen parte dira; gure herrialdeak ez du gura ohiturak desagertzetik, baina herri bezala ere aurrera egin gura dugu. Niri ez dit axola emakumeak zapia daroan edo ez, ikas-ketak eta prestakuntza izatea, hori da kontua.
—Tokian toki ohitura desberdinak daude, hemen zapirik ez erabiltzeak (orain) ez du askeago egiten emaku-meak, hori esan gura duzu?
—Nik beti diot jendartearen hutsak emakumeok ordaintzen ditugula. Kul-tura eta errepresioaren artean bereizi beharra dago. Leku batzuetan, zapia eroan behar izatea, eroan ezin izatea bezalakoa da. Emakume askea izanik erabaki behar jantzi edo ez. Ni herri

biren artean bizi naiz, eta hemen ere, oraindino ez dago askatasunik emaku-meentzat, asko falta da. Zapia ez da tra-ba emakumeak aurrera egin dezan.
—Beraz, literatura gainditu du eztabai-dak.
—Horretan izan da ika-mika, barruan eragin didatelako. Bertara bildu diren

zenuen kazetaritza, Saharara ere bazo-az, hari buruz idazten jarraitzen duzu.
—Saharari eta beste gauza askori buruz idazten dut, baina oraindino ez naiz sartu lan-munduan, ez dut oraindino lanik egin ezelako hedabidetan. Krisian murgilduta bagabiltza ere, modu askea-go batean idaztea hautatu dut. Halere,

“Niretzako zapia identitatearen zati da, ez da traba emakumeak aurrera egin dezan”

emakumeentzako zapia errepresioaren parte dela eta niretzat identitatearen parte dela ikustea, horrek gainezka egin dit. Emakumeak txikitzen ez, baina adi-nez nagusi denean zapia jantzi gura badu, jantz dezala, baina ez gurasoek ez inork inposatu barik.
—Urteak Euskal Herrian, Leioan ikasi

ez dut lanik lortu, eta alternatibarik ezean, idazten jarraitzen dut. Saharari buruz ere, azken batean, poesia egiten badut, suposatzen da sahararra izango dela. Gai askori buruz idazten dut, poema auto-biografikoak dira eta eza-gutzen ditudan gaiak eta lekuak islatzen dituzte. o

“Getxo akordaten naz”

dokumentala azpтитuluakaz

Zelan eskuratu?
Zatoz UK-ren bulegora*,
eskatu eta eroan musutruk!

* Bulego ordutegia: 10:00-14:00/16:00-18:00
Amezti 6, 4. solairua / 5. bulegoa
Algorta (Getxo)



Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Gorka Aurre > San Nikolas

“Txistua bihotzean daramat eta bere soinuak barne zirrara eragiten dit”



“San Nikolas eliza-inguruak hainbat gogorapen dakarzkit”

San Nikolas enparantza eta ingurua udalerriko hainbat gertakizun eta ekitaldiren lekuko zuzen dira. Baita iraganeko oihartzun aitorle ere. San Nikolas enparantzak nire bizitzako une garrantzitsu diren oroitzapen atsegingarri, aberats eta ugari dakarzkiz gogora. Bereziki txistuari lotutakoak. Txistua bihotzean daramat eta bere soinuak entzuteak barne zirrara sakona, hunkigarria, eragiten dit.

Gernikatik Getxora etorri berritan neure ardurapean hartu eta hogeitaz urtean zehar zuzendu nuen egungo San Nikolaseko Udal Liburutegia dagoen eraikinean kokatutako Getxoko Txistu Ikastegian txistua irakasteari ekin nion. Bizipen liluragarriak urte horietan guztietan txistu irakaskuntzak eta bereziki ikasle izan nituen neska-mutilek eskaini zizkidatenak.

San Nikolas eliza-inguruak: Bihotz Alai

abesbatzarekin batera egindako saioak; Getxoko Itxas Argia Elkarteko adiskideekin jardunaz Getxotik zehar Agate Deuna txistuz lagunduta iluntzean; Algortako Batzokiko dantza taldeko txistularia izan nintzan garaiko oroitzapen eta harreman atsegingarriak; San Nikolas elizan udalerriko hainbat ezagun eta lagunaren ezkontzetan [baita hileta-elizkizunetan ere] txistulari gisa jardundako oroi-penak; hilero laugarren igandean Uribe Aldeko Martiartu Txistulari Batzakoek San Nikolas enparantzaren txistu kontzertuak eta beste hainbat ere. Txistulari Elkartean hogeitaz urtetik gora eman nituen. Giro bikaina, adiskidetasun nabarmena eta bizipen aberats, pozgarri eta atsegingarriak. Gogoko nituen San Nikolas enparantzaren, elizako ezkilak hamabikiak ematen zituztenaz batera, Martiartu txistu-

lari Elkarteko kide izanik txistu kontzertuak ematea. Eguraldia gorabehera, txistu kontzertua beti ematen genuen, inolako hutsik egin gabe. Eguraldi kaskarrek enparantzako ki-oskotik alde eginaraziz San Nikolaseko pilotalekuan kontzertua ematera behartzen gintuzten. Neguan, inketasia, euria edota antzerako eguraldi latzak zirenetan entzule zirenak baino kontzertua ematen genbiltzanok gehiago ginen. Egoera bitxiak ematen zitzaizkigun. Tamalez, gaur egun, Getxon betidanik kalean entzuteko aukera izan dugun txistu soinu entzun eta dastatzeko aukerarik ez dugun neurrian gure udalerririk bere ezaugarrietariko bat galdu egin du. Kultura adierazgarriak zaintzerik ezak herri-nortasunaren ahulezia dakar. Zaindu, indarberritu eta bultzatuz bada geure nortasunaren ikur baitira! ○

GetxOnegin

Zintzurra busti eta sabela bete, euskaraz



Gutzira 20 taberna eta jatetkek eman dute izena pintxo txapelketan

Urteak daroaz Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko merkataritza sektorea euskalduntzeko ekimenak sortzen. Aurten, ostalaritza sektorean beharrean hasi da eta, abendurako, proposamen goxo-goxoa prestatu du: *GetxOnegin*.

Alde batetik, hilaren 19an eta 20an I. Pintxo Lehiaketan parte hartzeko aukera egongo da. Andra Mari, Algorta, Erromo eta Areetako 20 taberna eta jatetkek egin dute bat ekimenagaz; horietako bakoitzak, pintxo bana prestatu, eta lehiaketak irauten duen egun bietan, euro baten truke eskuragarri jarriko du. Bezeroek, pintxo dastatu eta euren gustukoa izan den esateko aukera izango dute, horretarako prestatu dituzten txartelak betez eta postontzian sartuz. Parte hartzen dutenen

artean, lagun birentzako afaria zozketatuko da. Bezeroen sariaz gain, epaimahaiarena egongo da.

Bestalde, abenduaren 26an eta 27an, lagun artean zintzurak ohi baino merkeago bustitzeko aukera emango digute. Kasu honetan, 39 taberna eta jatetkek egin dute bat ekimenagaz; horietako batean euskaraz eskatzen duten bezeroek ZIRT ZART txarteltxoa jaso eta erronda bat doan irabazteko aukera izango dute. Horrez gain, manteltxoak, hiztegitxoak eta bestelako materiala banatuko da ostalarien artean, euskaraz egitera animatzeko.

Euskara Zerbitzuko lagunak, pozik daude ostalariak emandako erantzunagaz eta bezeroak animatu gura dituzte parte hartzera eta herriko taberna eta jatetxeetan euskaraz eskatzera. ○



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkargaz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Etxakina, Gobeia erakinean sartuta • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA



KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA

TF. 94 491 02 93



GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO TF. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA TF. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA TF. 94 464 40 58
- Teletxe 11, ALGORTA TF. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA TF. 94 676 11 01

Toponimoa > **San Nikolas**

San Nikolas (plaza):

Elizaren ondoan egoteak eman zion izena plaza honi, baina diktaduraren garaian izena aldatu zioten eta *16 de Julio* izena eman. Demokrazia heldu ostean, 1980an zenbait kale izenen aldaketa proposatu ziren eta hau izan zen horietako bat. EAJk herriak erabilitako *San Nikolas* proposatu zuen eta HBk *Txiki Otaegi*, diktaduran afusilatutako faxisten kontrako borrokaren azken euskal presoaren eta Franco beraren lurperatzearen sinbolo zelakoan. Bozketa egin zuten eta *San Nikolas plaza* izena aukeratu zuten (19 botu alde, 5 kontrat). 1876an *Konstituzioa* izena zuen plaza honek.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18

48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com


HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUIN:

- [1] Kirol mota.
- [2] Korta, abereen etxe.
- [3] Sartu aditzaren erroa. Mago ospetsu baten herrialdea.
- [4] Hego Amerikako antzinako herri bateko kidea. Bokala.
- [5] Erromatarrez, berrogeita hamar. Zezen zikiratua.
- [6] Senide arrak.

GOITIK BEHERA:

- [1] Arma mota.
- [2] Eduki, izan. Kontsonantea.
- [3] Turkiarren herrialdea.
- [4] Bat gehi bat. Erne!
- [5] Gramineoen familiako landare. Kasik.
- [6] Ez laburrak.



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zelan deitzen da
Fermin Muguruzak
Palestinako musikariei
buruz egindako
dokumentala?

> Aurrekoaren erantzuna: Maria Kristina parkea
> Irabazlea: **Lander Solozabal***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

*Nor hurbiluko da gure
etxeetara gabon
gauean?*

- **Olentzero**
- **Anbotoko Mari**
- **Perez arratoia**

> Aurrekoaren erantzuna: Plentzia
> Irabazlea: **Diana Vazquez***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Usategi
kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
Tf. erreserbak: 94 460 64 13

SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



TXETXU CORIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

AREETARRAK URDULIZEN, 1976

Areetako Berantzagi taldeko dantzarien aitak dira argazkikoak, ia guztiak areetarrak (bat izan ezik), jaiotzez ere bai. Urdulizen ditugu buztan erregosia prestatzen, izen bereko lehiaketan parte hartzen. Hamar urte lehenago edo sortua, aurtengoa 43. lehiaketa izan da. Antza denez, ondo bete zuten lana, beraien lapikoari saria eman baitzioten eta, gainera, talde bezala beste sari bat eskuratu zuten, beharbada denak arrantzale jantzita, lehiaketa girotu zutelako. Sariak eskutan, mahai luze baten benetako familiarteko bazkaria egin zuten: sukaldariak, emazteak eta seme-alabak, danak elkarregaz. ○

Zutunik: Lander Artetxe (GB), Txetxu Coria, Luis Castellanos, Vicente Muñoz, Jose Luis Paul, Angel Mari Martinez.
Makurtuta: Santi Marin (urte askoan Berantzagi taldeko arduraduna) (GB), Jose M^a Eguizabal, Ramon Mendieta, Jose Antonio Sellan "Chato" (Berantzagi taldeko oraingo arduraduna).

54 UK